



uk

212. zenbakia / 2012ko apirilaren 15a

# URTERO 20€

**Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki**  
**Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri**  
**Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean**  
**Urtero argazki zahar eta barriak**  
**Urtero zure proiektuak lau haizetara**  
**Urtero 20 euro**

**uk**  **Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.**

**uk** [www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz) **neuk ere gura dot** **UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz**

**Dacia Sandero**  
5.790€<sup>1</sup> tik hasita



**Dacia Duster**  
10.400€<sup>2</sup> tik hasita



**URTEBETEZ<sup>3</sup> ASEGURUA DOAN**

**Dacia España** **Dacia ESP** **3URTEZ<sup>4</sup> BERMEA EDO 100.000 km**

[www.dacia.es](http://www.dacia.es)

**1.)** Publikoarentzako Salmenta Prezioa, Penintsularako eta Balear uharteetarako, 2012ko apirilaren 30a arte, partikular batek edo autonomo batek Sendero Base 1.2. 2 55 Ku (75cv) erosteko. Zergak barne, RCI Banque Sucursal en España finantzatu gero. Horrez gain, 500€ ko beharpena Publikoarentzako Salmenta Prezioan, finantziarioari lotua. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa 4.000€. RECSAk diruz lagundutako beharpena, finantziarioari lotua. Balear uharteetarako, 2012ko apirilaren 30a arte, partikular batek edo autonomo batek Duster Base 1.6 77kw (105CV) bat erosteko, Zergak barne, RCI Banque Sucursal en España finantzatu gero. Horrez gain, 1.000€ ko beharpena Publikoarentzako Salmenta Prezioan, finantziarioari lotua eta bateragarria doako aseguruarekin. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa 4.000€. RECSAk diruz lagundutako beharpena, finantziarioari lotua, Duster gamako edozein ibilgailutan. **3.)** Arrisku orotako aseguru, doakoa, lehenengo urtean, 300€ ko frantziarekin 30 urtetik gorako bezeroentzat, eta 600€ koa 30 urtekoentzat edo 30 urtetik beharagoentzat, MAPFRE konpainiarekin. Dacia gamako ibilgailu berri bat 2012ko apirilaren 30a arte erosten duten partikularentzat eta autonomoentzat, RCI Banque Sucursal en España (finantzatu beharreko gutxieneko: 4.000€). RCI Banque Sucursal en España oparitutako aseguru. **4.)** Aurreneko bi urteetako bermea, kilometro-mugarik gabe. Bigarren urtetik aurrera, bermea amaituko da 2 baldintzetatik bat gainditzen denean. Irudietako modeloak: Duster Laureate 1.6 77 KW eta Sandero Laureate 1.55Ku.


**Dacia Sandero:** Kontsumo mistoa (l/100Km) 4,0tik 7,3ra. CO<sub>2</sub> isuria (gr/Km) 104tik 169ra.  
**Dacia Duster:** Kontsumo mistoa (l/100Km) 5,0tik 8,0ra. CO<sub>2</sub> isuria (gr/Km) 130tik 185era.

**BILBO BERRI** Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. Devustu - Bilbo  
**LEIOA BERRI AUTO** Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

Dacia recomienda **elf**

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta Elkarte  
**HELBIDEA:** Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
**ZUZENDARIA:** Irantzu Sagarmínaga  
**ERREDAKZIOA:** Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gijarubia, Irantzu Sagarmínaga  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Ziortza Vega  
**KOLABORATZAILEAK:** Jorje Perez, Bittor Eguro, Fredi Paia, Armando Llamas, David Crestelo Kres, Algortako Berto Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte  
**MARRAZKILARIA:** Dogan Gozel  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Erika Martinez (944 911 337)  
**FILMAZIOA:** Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799  
 © Boluntzarreta



### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

		
		
		
 Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia Departamento de Cultura		

## Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Buru bako marinela.
6. FACEGUK. Gazte-lokalen erabilera arautu beharrekoa da?
7. LEHEN ETA ORAIN. Neguri.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Josetxu Perez Ansoleaga.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Ereaga hondartzako garbiketaren solidarioa.
28. ARGAZKIA. Trolebusa Getxon.
30. BERBETAN. Mikel Kazalis.
34. FOTOGRAFIA. Erandioko Tartanga Institutuko MBrako lanak.
40. SAKONEAN. Biladi Hadi ekimena.

### KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Zubiak lehiaketako saridunak.
43. MUSIKA. Afari Akustikoak Kalezulo gaztetxean.
44. LIBURUAK. Euskal anarkismoaren liburu-aurkezpena Sopelan.
45. KIROLA. Lointek birindulari taldeko Mireia Epelde.
46. ELKARRIZKETA. Iker Rodrigo eta Eli Zubiaga.

### AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Talo erako pintxoak.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Astrabuduko "Atxazpe" Mendi Taldea Diman, 1974
54. AITORMENAK. Gotzon Mantuliz.

Azala: Erandioko Tartanga Institutuko ikasleak


[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)




30 Mikel Kazalis

### Berbetan

Bere izenaren alboan "Anestesia" ezizenagaz bere abizenez baino ezagunagoa den musikari zautarra.



11 Josetxu Perez Ansoleaga



54 Gotzon Mantuliz

## aldizkaria etxean jaso gura baduzu

### HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....  
 Kalea/zenb..... Herria.....  
 e-mail.....  
 Telefonoa..... Mugikorra.....

**Urtero**  20 euro  30 euro  50 euro  
 beste kopuru bat ..... euro

**Kontu zenbakia (20 digito)**

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa. 48991-Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

**Leihatila**

&gt; Amaia Arriaga

## Banderak

Azken greba orokorraren atarian, Josu Murueta eta Anton Fernandez izan ditut gogoan, egun batzuk lehenago haien omenezko plaka berriak jarri dituztelako Erandioko Obieta kalean, Anton zenaren etxepean. Josu eta Anton poliziak hil zituen, tiroz, 1969ko urrian. Garai hartan, aire-kutsadura jasanezina zen herrian, eta jendeak kalera urten zuen protestan. Arnasa hartzeko eskubidea aldarrikatzen zuen, 'gasik ez!' oihua lelo hartuta. Errepresioa, ordea, erantzuna: Guardia Zibilak eta Polizia Armatuak borraz eta tiroz sakabanatu zituen protestak.

Hildakoak eta zaurituak izan ziren.

Gertakari horiek direla eta, greba orokorrak egin ziren, eta xingola belzdun izara zuriak jarri zituzten Erandioko balkoi asko eta askotan, dolu-ikur. Zirrarragarria izan zela kontatu didate oraindik irudi hura gogoan duten lagunek.

Egunotan ere greba orokorra egin dugu, eta herriko balkoiak bandera gorri-zuriz eta zuri-gorritz josita daude. Batzuentzat zirrarragarri. Baina tartean bandera faltsuak ere badaudela jakin dut.

## Iritzia

**Euskaria Fundazioko eta Independentistak Sareko kide Zelai Nikolas abokatu berangoztarraren (Barrikan bizi bada ere) ekarpena duzu ondorengoa:**

# 2012ko Aberri Eguna

Lehen Aberri Eguna 1932an ospatu zen Bilbon, Eusko Alderdi Jeltzaleak deitua. Espainiako 2. Errepublikaren garaia zen eta 60.000 pertsona batu zituen. Hantxe egon zen gure aitite, gerra zibilean gudari izan baino lehen. Gure gurasoei eta beren belau-

**«Aurtengo Aberri Eguna berezia da; arlo askorengatik»**

naldikoei egokitu zitzaizen frankismo garaiko Aberri Egun klandestinoetan (1960 Itsasun, 1964an Gernikan, 1966 Gasteiz eta Iruñean) eta Franko hil osteko Aberri Egunetan parte hartzea.

Nire belaunaldikook, berriz, urtero bat egin dugu Aberri Eguneko deialdiren batekin. Guk Iparraldeko alderdi abertzaleek deitutakoetan parte hartu izan dugu urte askoan, deialdi bateratua egin izan dutelako (aurten ere, Donibane Garazira joateko deitu dute Iparraldeko alderdi abertzaleek). Baina, 2009tik hona Independentista Sareak hartu du independentistontzat Aberri Egun bateratua eskaintzeko ardura eta horretan parte hartu ohi dugu, beste abertzale andana

bezala. 2012ko Aberri Eguna **berezia** da. Berezia arlo askorengatik, nire ustez.

– Sinbologia berezia du 2012. urteak: Nafarroako konkistaren 500. urtemuga da eta Gernikako bonbardaketaren 75.a. Euskal Herriko lurraldetasunaren aldarrikapena eta bakegintzaren arloko konpromisoak lotzeko aukera paregabea.

– 2012. urtean gauzatu da Euskal Herri osoko abertzaleen egituraketa, bi ardatz nagusitan: alde batetik, EAJ-PNV dago (gizartearen sentzibilitate zentro-eskumari erantzuteko) eta bestetik, ezker abertzale zabala (Baionako Akordioaz geroztik (2012-03-14) honako hauek osatzen dutena: ezker abertzale tradizionala, EA, Alternatiba, Aralar eta Abertzaleen Batasuna).

Hori dela eta, **sendotuta heldu gara 2012ra** eta horri esker Independentista Sareak aurreratu duenez, «Euskal Estatua berreskuratzeko ordua iritsi da» eta «Aurtengo Aberri Egunak independentziaren bidean urrats eraginkorren hasiera markatuko duen mugarrria izan behar du».

Euskal Estatua berreskuratzeko bidea luzea eta neketsua izango da oraindik, baina jadanik argi dugu inposaketa eta mendetasun iragana atzean utzi eta askatasuna-geroa eraiki nahi dugula. Lan molde berriak erabili beharko ditugu, gure arteko elkarlana eta konfiantza sustatu beharko dugu. Giza-eskubide guztien aldeko lan-dinamika itzaropentsu eta ilusionagarria martxan jartzeko ardura dugu. Euskal Herriaren xedea ohiko lan jarduera eta jarduera instituzionalean txertatu beharko dugu. Baina, euskal herritarrok ikuspuntu guztietatik eta alor guztietatik begiratuta, gero **eta argiago ikusten dugu independentzia dela aukerarik onena Euskal Herriarentzat.**

Orain arte Argi berdea independentziari aldarrikatu dugu aurreko Aberri Egunetan. Aurton berriz **Euskal Estatua eraikitzeko dinamika politiko eta soziala adosteko unea dela aldarrikatzeko** elkartu gara Iruñean.

**Zelai Nikolas**

(Euskariako eta Independentista Sareko kide)

**UK-ko lan-taldea**

## gu geu

## Geure baitakoak

Hamaika oihu, haserre, kolore eta, batez ere, aldarrikapen izan zituen martxoak; urtaro eta ordu aldaketen kontuetan legez, ea lortzen dugun gainontzeko eraldaketa-eskakizunetarako ere adostasuna. Baten batzuek apirilko ospakizunetako gurtuei luzatuko zizkieten euren nahiak eta desioak; beste hainbatek aisialdiaz gozaten pasako zuen lurreko bizitzako opor-denbora bitarte hau, eta beharreen egon direnak ere badira! Lan bila jarraitu dutenak ere bai!

Martxoaren 8ko eguneroko aldarrikapenak, greba orokorraren oihartzunak, Aberri Eguneko gogoetak, gazteen eta nagusiagoen alkar ulertzeko "zailtasunak", Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimenak, Gerra Zibileko oroimena berreskuratzeko ekitaldiak, udal-aurrekontuen eztabaidak, udarako proposamenak eta aurre-prestaketak, elkartasun egitasmoen eta abarren barri emoten du zenbaki palindromoa daroan eta ospatzen dugun UK honek.

Hurbileko kontuak jasoko dituzue beste behin UKren orrialdeotan; hurbiltasunak urrunera ere eroan gaitzakeelako. Hurbileko istorio eta historia bila abiatzen gara sarri urrutira lagunen eskutik, askotan urrutiko lagunen ahotsek gertu sentitzen ditugun kontu ezagunak kontatzen dizkigute... Distantzia, bakoitzaren neurtzeko moduaren arabera, geure baitakoa, delako... Eta ospatzeko arrazoiak eta moduak ere bai!! Beste UK bat kalean dagoelako eta, 212a delako: zorionak!!



PLENTZIA, MARTXOAK 12

**Buru bako marinela /** Hil ugari daroa arrantzaleak itsasoari begiratu barik; askok legez, burua galdu eta ez du berreskuratzetik izan Plentziako hondartza eurrean dagoen arrantzaleak. Antza denez, baina, ez da asko lotzen geure marinela burua berreskura dezan. Horrela, agian, buruagaz batera inoiz menperatutako arrazoa bereganatuko ei du; edo ez, burua lepo gainean izateak ez duelako esan gura iparra galdu ez denik. Ipin bitartean, hortxe dugu irudi xelebrea benetan, marinela itsaso eurre-eurrean eta (h)ura ikusi ezin! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Gazte-lokalen erabilera arautu behar dela uste duzu?



**Iker Saiza**

> aisialdi-begiralea

Arautzeak elkar errespetatzea badakar, ondo deritzot arautzeari. Hori bai, betiere, gazte-lokalei berauen izaera kendu barik. Horrela, gazteek auzokideak errespetatzen badituzte eta auzokiek gazteak, elkarbizitza lortuko da. Baina bien eskubideak errespetatuz.



**Izaskun Manteca**

> ikaslea

Uste dut hobe dela gazteek euren lokaletan egiten dutena egitea, kalean egitea baino. Azken finean, gauza horiek lokaletan egiten badituzte, ez dute inor izorratuko; kalea ez dute zikinduko, ezta zarata aterako ere. Azkenean gazte-lokalak tabernak bezalakoak dira.



**Ander Zarandona**

> ikaslea


Ondo erabiltzen baldin badira gazte-lokal horiek, hau da, zikinkeriarik ez badago eta ordena mantentzen bada; horrenbestez, errespetua baldin badago, ez da beharrezkoa araurik jartzea. Gainera, arau batzuk baino ez nituzke onartuko.



**Estibaliz Arrieta**

> ikaslea

Nire aburuz zarata kontrolatzeko araua egin beharko lukete; izan ere, askotan zarata handia ateratzen da gazte-lokaletan. Halere, nik ezagutzen ditudan gazteek auzokideak errespetatzen dituzte. Elkarbizitza egon dadin beharrezkoa da jendeak kontzientzia hartzea.



**Gorka Uriarte**

> euskara-irakaslea

Beharrezkotzat jotzen dut gazte-lokalak arautzea, gure etxe aurrean gazte-lokala zegoen, eta azkenean, gazteak lokaletik kaleratu behar izan zituzten; zarata handia sortzen baituzten. Halere, gazteek ere horrelakoak izateko aukera izan behar dute, ez baitaukate udaletik eskaintza handirik.



**Gurutze Markos**

> irakaslea

Arau batzuk jarri beharko lirateke; zarata kontrolatzeko, esaterako. Nik neuk ez dut esperientzia txarrik izan gazte-lokalekin; etxe ondoan dagoenarekin, adibidez, ez dugu inoiz arazorik izan. Benetan uste dut, oro har, bertan dauden gazteek auzokideak errespetatzen dituztela.



## Iraganez doa denbora\* beti / NEGURI

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; antenatik zintzilik



Ereaga, 2012ko otsaila

Testua: **Unai Angulo**  
Argazkia: **Asier Mentxaka**

Aldatu zaigu aspaldi gendun paisaia, (e)ta ingurua ez dugu zaindu aitona-amonek utzi ziguten mundua; kontsumismoak izan badauka guzti honetan errua, orain antenek betetzen dute kabiek zuten lekua.

Segapotoak erabiltzeko antenak behar derrigor, nire etxeko teilatura gaur antena berri bat dator; bi teknikari bidali dute, bata Jon (e)ta bestea Aitor egunero bat jartzen digute (e)ta ez da kexatzen inor.

Jon eta Aitor oraindik daude antenatik zintzilika, gora begira hodei artean jolasean ika-mika; bi, hiru kable lotu dituzte dena punttuan jarrita, izan daitela jarri behar duten azken antena(re)n kronika.

\* Doinua: Basatxoritxu mokoluzia

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!  
[uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)



Sekeko erroten talo-tailerra prestatu dute

## berbatxangoak &gt; Sopelako errota

**Sopelako** Aitxu elkartekoak hasi ziren Berbatxangoak antolatzen; iaz Getxoko Egizu elkartekoak batu zitzaizkien eta aurton Erandioko Berbots elkartekoak. Gai bat ardatz hartuta, hizlari edo gida baten laguntzagaz urteera egiten dute gai hori lantzeko; edozein euskaldunek parte har dezake, goiz batekoak izan ohi dira, Uribe Kostan, doan. Ez dira mendi-ibilbideak, distantzia luzea bada, garraioen

bat erabiltzen dute. Datorren Berbatxangoa, apirilaren 29rako iragarri dute, goizeko 09:30ean Iberrota baserrian hasita; gero, autobusa hartu eta Urdulizko Errotaxura joango dira, azkenik Sekeko erroten talo-tailerra antolatu dute. Hurrengo zita maiatzaren 12an izango da, Erandio-ko Toponomia ezagutzera joango dira. ○

Info+: [aitxuzuba@gmail.com](mailto:aitxuzuba@gmail.com)  
[berbots@gmail.com](mailto:berbots@gmail.com) / [www.egizu.org](http://www.egizu.org)

## euskal udalekuak &gt; uztailean eta abuztuan

“**Euskara** eta euskal kultura dira Euskal Udalekuen izateko arrazoi nagusia. Udalekuotan konstante bat da euskaraz komunikatzea eta euskal kulturaren ezagutza eta hurbiltasuna. Parte hartzeko web orriko fitxa bete beharko duzu. Txandak bete arte zabalik egongo da izena emateko epea. Aukeran 3 leku dago: Abaigar (1. txanda uztailek 1-15; 250 € 2. txanda uztailek 15-29; 3. txanda uztailek 29-abuztuak 7;

160 €; Bernedo (1. txanda uztailek 1-15; 250 € 2.a uztailek 15-23, 140 € 2.b txanda uztailek 23-31; 3. txanda uztailek 31-abuztuak 8; 4. txanda abuztuak 8-23, 265 € eta Goñi (1. txanda uztailek 8-17, 160 € 2. txanda uztailek 17-30, 230 € 3. txanda uztailek 30-abuztuak 8, 160 €). Txanda bakoitza adin tarte zehatz bati dagokio, adi begiratu umeari (1995-2005 bitartean jaioak) zein dagokion! ○

Info+: [www.euskaludalekuak.org](http://www.euskaludalekuak.org) / 943 751 407

Topaguneak antolatzen du ekimena

## kameratoia &gt; Gernika-Lumon

**Joan den urtean** gure eskualdean egin zen ekimena, Kameratoia, martxan da barriro ere. Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya, Gernika-Lumon izango da aurten, maiatzaren 12tik 26ra. Lehiaketa 18 eta 35 urte bitartekoentzako da, eta helburuak hauek dira: gazteen sormena eta ekoizpen artistikoa sustatzea, eta egiten dituzten lanak gizarteratzea. Gutxienez 3 eta gehienez 8 minutuko

ikus-entzunezkoak sortu beharko dituzte, euskaraz. Maiatzaren 12an, landu beharreko gaia eta eskualdeko hainbat ezaugarriren zerrenda jasoko dituzte parte hartzaileek; ordutik, bost egun izango dituzte lanak sortu eta aurkezteko. Guztira, 3.600 € banatuko dituzte saritan. Izen-emotea apirilaren 27ra arte egongo da zabalik. ○

Info+: [www.kameratoia.com](http://www.kameratoia.com)

## saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143

# EUSKARA, MERKATARITZARA ZERBITZU-GUTUNA



## ERROTULUA IPINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko dirulaguntzak.

## ITZULPEN ZERBITZUA gehi@getxo.net

Urte osoan eta doan. Zure kartelak eta idatzia euskaraz edo ele bietara, zuk nahi duzun bezala.

## MAKETAZIO ZERBITZUA

Zeuk aukeratu kartela egiteko gehien gustatzen zaizun diseinua eta paper-tamaina. 10 paper-diseinu aukeran.

## “DENDAKETAN” EUSKARA IKASTARO LABURRAK

Bezeroei arreta euskaraz egiteko 60 orduko ikastaro laburrak.

## EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Baldintzak betetzen dituenari Udalak matrikularen %100 itzuliko dio.

## MATERIAL SORTA INTERESGARRIA

Euskaraz edo ele bietan eta DOAN. “Zabalik/ Itxita”, “Merkealdia”, “Eskaintza bereziak”, “Erreklamazio-orriak eskuragarri”, “Gabonetak loteria”, “Udako ordutegia”, “Oporretan gaude” inprimakiak (fakturak, ordainagirak...).

## EUSKARA BIZI

HEMEN ERE EUSKARA BIZI leloa duten mahai-gainekoak, kartelak...

## HIZKUNTZA AHOLKULARITZA

### EGIN ZURE ESKAERA



94 415 22 52

gehi@getxo.net



“Gaitza egiten zait esaera zahar bakarra hautatzea; izatekotan, ‘gero diñoanak bego diño’ aukeratuko nuke”

## Josetxu Perez Ansoleaga > Lanak ez du lotsarik!

**Probatzen duenak** errepikatu ohi du... Hala ei diote urtez urte Sopolako Esaera Zaharren txapelketan parte-hartzen duten lagunek! Oraindino ez baduzu desafio honetan parte hartu, apirilaren 21ean izango duzu aukera. Izan ere, egun horretan ospatuko da txapelketaren 19. edizioa. Eta urtero legez, bertan izango da Josetxu Perez sopoloztarra, buru-belarri antolakuntza lanetan, baina umore ona (eta gogoa) galdu barik. Txapelketaren sortzailea da Josetxu: “*Jolas moduan antolatu gendun Gabi Basañezek eta biok. Lehenengo urtean Algortan, baina Sopolako AEK-ra etorri ginen inakasle, eta txapelketa bertan lotu zen*”. Egun, Aitor F. Martikorena romotarra dabil beragaz antolakuntzan; ‘etxeko’ jaitxoa izatetik, Uribe Kostako euskaltzaleon erreferente izatera igaro da: “*Itzela da! Hasieran 20 edo 25 esaera zaharren zerrendagaz antolatu gendun, euskaltegi barruan*”. Baina txapelketa euskaltegitik atera, eta plazara eta tabernetara eroan zuten: “*Egun, ni joaten naiz tabernaz taberna txapelketaz informatzen*”. Urte asko daroa Josetxuk euskalgintzan lan eta lan, huts egin barik, eta atsotitzakaz gora eta behera. Bada, ezinezkoa egiten zaio bere kuttunena aukeratzea: “*Gaitza egiten zait; baina izatekotan, ‘gero diñoanak bego diño’ aukeratuko nuke*”. Apirilaren 21ean, beraz, giro jatorraz gozatu eta asko ikasi, ez saiatu antolakuntzari tranparik egiten... azeri zaharrak tranpian txiza! ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**



# 469 denda gutxiago hiru urtetan

**Merkataritzak** eta ostalaritzak **krisialdiaren eragina** jasan dute Getxon: **hiru urteren** buruan **itxi dute 469** saltokik. **Langabezia-tasari** dagokionez, barriz, **Bizkaikoaren azpitik dago**

2009tik hona 469 saltokik itxi du herrian, eta horietatik 161, azken urtean. Langabeziari dagokionez, barriz, Bizkaiko eta EAEko langabezia-tasaren azpitik dago Getxo. Herritarren artean 4.206 dago langabezian, (herritarren %11,1); bizkaitarren artean, barriz, %14,8 eta EAEko biztanleen artean %13,5. Krisialdiaren eragina, honenbestez, saltokietan ere antzeman daiteke.



Azken urtean 161 saltokik itxi du

**Merkataritza** eta ostalaritza da Getxoko sektorerik indartsuena, baita krisialdiaren eragin handiena jaso duena, Udalak dioenez. 2009tik hona, 469 saltoki itxi dituzte Getxon, horietatik 161, 2011n; Getxok 6.713 establezimenduen jarduera hartzen du Udaleko Sustapen Ekonomikoaren arloaren datuen arabera.

Esparrurik kaltetuenak izan ei dira, arropa, zapata eta etxeko-hornikuntzari dagozkionak. Iragan azaroaren 31koa da azken datu hori, eta 2010 urteagaz alderatuta, %2,3 behera egin dute saltokiek, 2009-2010 urteko ekitaldian baino gutxiago, orduan jaitsiera %4,3ko izan baitzen. Udalak jakinarazi duenez, jaitsieraportzentaia hori Bizkaian jasotakoa bezalako da eta Euskal Autonomia Erkidegoarena baino txikiagoa (-%2,9).

Itziar Epalzak, Getxoko Udaleko Enpleguaren zinegotziaren arabera, Getxok "ezin du egungo krisialdi larria alde batera utzi eta, nahiz eta udalerriko merka-

taritza eta ostalaritza sustatu, batez ere txiki-kizkaria dena, Udaleko ildo estrategikoetako bat izan arren, argi dago krisiaren eragin handiena jasotzen duen sektorea dela".

Saltoki-itxierak, era berean, langabezian ere izan du eragina. Horrela, 2011n,

**"Gaur egun 2,8 langile dago saltokiko Getxon: guztira 19.052 langile"**

729 pertsonak galdu zuen lana Getxoko saltokietan (-%3,7): 2010ean 19.781 langile baziren, 2011n 19.052 pertsona zegoen kontratatuta. Langile horien artean daude, bai Getxon erroldatutakoak, bai alboko udalerrietako bizilagunak. Ondorioz, establezimenduko 2,8 enplegu dago, betiere Udalak dioenez.

Baina langabezia ez dagokio bakarrik merkataritza eta ostalaritzari, noski, eta langabezia-tasa ere aditzera eman du Udalak. Getxoko udalerrian %11,1koa da langabezia-tasa, EAEko (%13,5) eta Bizkaiko tasa (%14,8) baino baxuagoa.

2011 akabuan, 4.206 getxoztar zegoen langabezian (urte hasieran baino 310 gutxiago). Honenbestez, horrek suposatzen du langabetuen tasa %6,9 jaitsi zela, eta langabezia-tasa orokorra %0,8 murriztu zela.

Datuok bildu ditu Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistemak, SISPEk, antzinako Enplegu Institutu Nazionala edo INEM. Eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren menpe dagoen Enplegu Merkataritzaren Euskal Behatokiaren bitartez eman ditu ezagutzera. ○

## Euskaraz gidatzera!

Gida-baimena euskaraz ateratzeko laguntza



Gorka Saitua La Torrek irabazi du bidaia gida-baimena euskaraz atera dutenen artean

**Orain gitxi arte** ezinezkoa izan da gida-baimena euskaraz ateratzea autoan ibiltzeko. Baina daborduko egin daiteke, eta ekimena sustatzeko, hainbat hitzaldi eskainiko dute Getxoko ikastetxeetan, Euskara Zerbitzuaren bitartez.

Zehazki, Batxillergoko euskarazko ikasleen artean emango dituzte hitzaldiok: apirilaren 19an Faturan eta 20an Aixerroan. Hizlaria izango da Iñigo Olabegogeoaskoetxea rally-gidaria. Gainera, auto-simulagailuak ere eroango dituzte ikastetxeetara.

Ildo horretan, gida-baimena euskaraz ateratzea sustatzeko, aurten ere, dirulaguntzak emango dituela jakinarazi du Euskara Zerbitzuak. Era berean, auto-eskolakaz harremanetan eta elkarlanean jarraituko dute, bai Bizkaiko Aldundiak,

bai Euskara Zerbitzuak, euskal irakasleak trebatzeko laguntza eskainiz, hain zuzen, euskarazko zerbitzua emoteko prest egon daitezten. Gainera, 17 eta 23 urteko getxoztar danei informazio gehiago helaraziko diete etxera.

Azken urtean 28 lagunek atera dute gida-baimena euskaraz gure eskualdean, horietatik 25ek Getxon. 2010ean, barriz, 3 urteko kostarrek besterik ez zuten egin. Izan ere, orain bi urte abiatu zuten ekimena. Urtero zozketatzen dute interrail bidaia parte-hartzaileen artean, eta bi urteetan egokitu zaio getxoztarren bati; aurten Gorka Saitua La Torrek irabazi du lau lagunentzako bidaia.

Kanpaina Uribe Kostan, Erandion eta Bizkaiko beste hainbat herritan garatuko da, aurreko urte bietan legez. ○

## WEBGUNE BARRIA DAUKA UDALAK

Getxoko Udalak webgune barria dauka martxoaz geroztik, "udalerrian ekipamenduak berritzatzeko abiatutako prozesuaren harira". Udalaren arabera, hiru helburu dauzka aldaketak: "Herritarrentzako erabilerrazagoa izango den komunikazio kanal zuzen eta eraginkorragoa sortzea; Getxori buruz eskaintzen den informazioa hobetzea kanpora begira, ikuspegi turistotik eta udalerrira bisitariak erakarri asmoz; eta webgunea ikusteko modua barritzea, Getxoren errealitatera egokitu den irudi freskoa eta dinamikoa sortze aldera". CBT enpresak sortu du webgunea eta interneteko ohiko helbidean topatuko duzu.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## ATLETISMO PISTA HOMOLOGATUTA

Atletismo Federazioak Faturako atletismo-pista barria homologatu du. Horri esker, Getxo Kirolak erakundeak edota udalerriko atletismo-klubek probak antolatu ahaliko dituzte pista horretan eta egiten diren markek baliozkotasun ofiziala izango dute. Federazioaren oniritziak 10 urteko baliozkotasuna dauka. Pista erabat birmoldatzeko 1,1 milioi euro gastatu dute, baina lanen %90 Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du, 2008ko uholdeetan kalte handiak jasan baitzituen Faturako atletismo-pistak.

## BILDUK AURREKONTUEN NEGOZIAZIOA ETEN DU

EAJgaz aurrekontuen negoziazioa eten du Bilduk Getxon, "EAJren erantzun eza" dela-eta. Bilduk dioenez, "herritarraz egindako bileratan jasotako proposamenak luzatu" zizkion EAJri, baina "bat ere argia ez zen erantzuna" jaso zuen. Hori dela-eta, "erantzun zehatzak eta urgenteak eskatu" zizkieten, baina ez ei dituzte jaso. Bilduren iritziz, horrek erakusten du aurrekontuetan "herriaren proposamenak kontuan hartzeko EAJren borondate eza". Oraindino bozkatzeko daude aurrekontuak.

**naturlan**

**Lorezaintza**  
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorteros  
"Amumak"

Asteazken poetikoak  
Itsas Fundazioa  
Euskara eta Algortako izenak  
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

<http://www.algorta.org>  
<http://amumak.getxo.net>  
e-mail: [sotaventoster@gmail.com](mailto:sotaventoster@gmail.com)  
Móvil: 656773080

**Garaizar**  
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
Ileeta kalea 1 • ALGORTA

**Borja Casas Izagirre** > La Kantera Skate Eskolako arduraduna

“Skate txapelketagaz asmoa daukagu kirola bultzatzeko Getxoko gazteen artean”



Txapelketan izen-emotea: 696 231 497 edota [www.eskateskola.com](http://www.eskateskola.com)

**Ospe handia dauka Arrigunagako skate-pistak: La Cantera. Duela hainbat hamarkada bertan patinatzen du skater askok, bai getxoetarrek, bai Getxotik kanpokoek; eta txapelketak egiten dituzte 80ko hamarkadatik hona. Duela lau urte, gainera, La Kantera Skate Eskola sortu zuen Borja Casas Izagirre skater algortarrak, umeak eta gazteak kirolean zaletu asmoz. Urtero ehunka lagunek jasotzen du ikastaroa eta, urtean behin, txapelketa antolatzen du eskolak. Aurten apirilaren 21ean izango da eta gura duten gazte guztiek parte har dezakete.**

—Apirilaren 21ean egingo duzue eskolako txapelketa, zelakoa izango da?

—Hori da. Eskolaren txapelketa izango da, baina La Cantera pistan, betidanik egin dira txapelketak. Gurea ume eta gazteen txapelketa da eta helburua da Getxoko gazteen artean skate kirola bultzatzea. Hainbat maila dago: 8 eta 11 urte bitartekoentzat, 11 eta 15 urte bitartekoentzat, eta 15 urtetik aurrerako skaterentzat. Horiek patinatuko dute txapelketaren lehenengo bi orduetan. Bigarren zatian, barriz, *pool session* patinaje askea

saioa egingo dugu skate-pistako igerilekuan. Gainera, margotu eta edertu ere egingo dugu. Inguruko jendeak parte hartzen du: Getxokoek, eskualdekoek, Bizkaikoek, Burgoskoek, Kantabriakoek, e.a. Facebook eta hedabideen artean jende askok dauka txapelketaren barri. Txapelketagaz asmoa daukagu eskolaren barri zabaltzeko eta kirola bultzatzeko. Eta eskerrak eman gura dizkiet babesleei: Alrikante eta Ratta Skate Boards-i.

—Igerilekuan, zelan da hori?

—AEBetan modan ipini ziren: igerile-

kuak biribilduak egiten hasi ziren, hutsik zeudenean, patinatu ahal izateko. Forma horretako bat dauka La Canterak; hain zuzen, horregatik da ezaguna mundu mailan gure skate-pista. Skater onenak etortzen dira bertan patinatzerara, toki

**«Pribilegioa da La Cantera pista: munduko skater onenak datoz patinatzerara»**

askotatik: AEB, Europa iparraldea, e.a. Pribilegioa da Getxon horrelako pista izatea, eta itsasoaren aurrean.

—Daborduko lau urte bete du eskolak, txapelketan bezala, helburua da kirola bultzatzea?

—Hori da, 2009an sortu nuen, Getxon skate kirola sustatzeko asmoz eta ume zein gazteek zaletasunen bat eduki dezaten. Izan ere, gora doa kirol hau herrian eta gazte askok gustuko du. Ildo horretan antolatzen dugu txapelketa. Orain helburua ere bada eskolaren egitasmoa zabaltzea, jendeak jakin dezala skate ikastaroak ematen ditugula.

—Patinatzen irakasten duzue?

—Bai, hasibarriei irakasten diegu oreka mantentzen skate-taularen gainean. Gainera, hobetzeko teknikak ere irakasten dizkiegu patinatzen dakitenei: estiloa eta irristatzeko formak hobetzen dituzte. Urte osoan eskaintzen ditugu ikastaroak. Gainera, ikastetxeetara ere hurbiltzen gara eta eskolaz kanpoko jardueren barruan ematen ditugu eskolak. Adibidez, oraintsu, Zabala eskolan gabiltza, Algortan. Bestalde, saio bereziak ere egiten ditugu; barbarako, behin Portu Zaharreko jaietan eman genuen ikastaroa gura izan zuten guztientzat. Gauza danen artean, iaz 600dik gora umeak parte hartu zuen gure ekintzetan. ○

## Liburuz jantzi apirila!

Liburu-azoka egingo dute apirilaren 20tik 23ra Geltokia plazan, Algortan



Fotorretro erakusketa ipiniko dute azokak iraun bitartean

**Apirilaren 23an** Liburuaren Eguna ospatzen da eta, ohi dan lez, Algortan Liburu Azoka egingo dute buelta horretan, apirilaren 20tik 23ra; bariku arrastian zabalduko dituzte postuak, eta zapatuan eta domekan, goiz zein arrastian. Getxoko Udal Liburutegiak eta hainbat liburu-dendak parte hartuko dute eta, aurtengo gaia zine-mundua izango da.

Azokagaz batera, hainbat ekintza eta jardueratan parte hartzeko aukera egongo da egun horietan, Geltokia plazan: gehienak elebidunak izango dira eta %10eko deskontuagaz salduko dituzte liburuak.

Honenbestez, barikua 20an hasiko da

azoka eta ikuskizun-tailerra zein kontularien kluba izango dira. Biharamunean, apirilaren 21ean, zine eta dantza-tailerrak egingo dituzte eta hitzaldia emango dute ilustrazioen jatorriari buruz.

Domeka 22an ere egingo dute dantza-tailerra eta, horregaz batera, ipuin kontaketa eta film labur-emanaldia izango dira. Azkenik, astelehena 23an, jendurreko umeentzako irakurketa egingo dute goizean, eta arrastian, nagusientzako ipuin-kontaketa izango da. Ekimenokaz gainera, Fotorretro Getxoko antzinako argazki-erakusketa ikusi ahaliko da Liburu Azokak iraun bitartean. ○

## IRABAZLEA DAUKA MAIA EGUTEGIA EGITASMOAK

*Munduko Mitologia eta kondairak* egitasmoak irabazi du Maia egutegia proiektuaren baitako lehen deialdia. Getxoko Udalak antolatu zuen ekimena eta 2.000 euroko diru-laguntza emango du lehen proiektu zehatz hau garatzeko. Ondorioz, munduko toki desberdinetako egutegiak, ilustrazioak eta kondairak erakutsiko dituzte Algortako Liburu Azokako postu batean. Material dana web orrialde batean ipiniko dute ostean. Gainera, Urkiolan ibilaldi bat ere antolatuko dute, “*mitologia ezberdinetan murgiltzeko*”. Maia egutegia proiektuak beste bi ariketa proposatuko ditu aurrerant, irailean eta abenduan. Ondorioz, beste horrenbeste deialdi egingo dute egitasmoak aurkezteko.

Info+: [maiaegutegia.wordpress.com](http://maiaegutegia.wordpress.com)

## KONTZERTUA 28AN LINDEGAARDEN OMENEZ

Urtero lege, Pio Lindegaarden omenez kontzertua egingo dute Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, apirilaren 28an. Jazz emanaldia izango da eta Vijay Iyer Trio taldea ariko da taula gainean, 20:00etan hasita. Sarrera 12 euro ordaindu behar da eta daborduko eros dezakezu.

## GETXOBERPIZTU! FINANTZIAZIO BILA

GetxoBerpiztu! ekimenaren bitartez Algortako Aretxondo kaleko orubea eraldatu eta egokitu gura dute, eta zer egin erabakitzen ari dira herritarren artean. Orain, proiektua gauzatzeko finantziazio bila dabilta: “*diseinu-proposamenak orubean fisikoki garatzeko finantziazio gehigarria lortzen saiatuko gara*”. Diru-bilketa mikrofinantziazioa edota finantziazio kolektiboaren bidez egingo dute, eta honenbestez, edonork egin dezake ekarpena. Horretarako, GOTEKO plataforman daukate webgunea. Bertan sartu besterik ez duzu: [www.goteo.org/project/getxoberpiztu](http://www.goteo.org/project/getxoberpiztu).

Info+: [www.getxoberpiztu.com](http://www.getxoberpiztu.com)

# lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



Janire Suarez Rivas > dietista

“Belaunaldiz belaunaldi pasatzen dizkiete seme-alabei elikadura-ohitura ez-osasungarriak”

Gosari osasungarriak kanpaina garatu dute Leioako ikastetxeetan martxoan, umeen artean gizentasunaren aregoatzeagaz arduratuta. *Abraz@ la vida* enpresak garatu du programa eta Janire Suarezek zuzendu du.



Info+: [abraz.LaVida@live.com](mailto:abraz.LaVida@live.com) / 638 122 845

—Osasuntsu gosaltzen irakatsi diezue umeei, zelan egin duzue?

—Hitzaldia eta gosaria eman ditugu. Lehenik, hitzaldian, elkarregaz landu dugu elikagaien piramidea, benetako janariagaz. Elikagaien ezaugarriez aritu gara eta gosari osasungarria zegaz osatu irakatsi diegu. Horren ostean, elkarregaz gosaldutako dugu: zukuia, esnea eta kakaoa, eta zerealak; oso gustuko dute umeek. Finean, azaldu diegu zergatik ez den osasungarri umeen loditasuna: egun ardura-tzekoa da arazo hori, gora doa-eta.

—Gerora ekar ditzakeen arazoengatik?

—Jaten dugunaren arabera osatzen dira hezurak eta giharrak, eta beraz, elikadura ez-osasungarria badarogagu umetan, arazoak sortuko dira gerora. Halere, daborduko badago ume asko amnea zein hipertentsioagaz: loditasuna daukaten umeen %40k dauka amnea lo egiterakoa. Horiek dira umeen loditasunaren lehen kalteak. Gainera, nagusitan lodi

izateko askoz ere aukera gehiago daukate ume lodiek.

—Egungo hazkundeak zerikusirik dauka elikadura ‘modernoagaz’?

—Bai, urtetik urtera garatuz goaz elikadura-ohitura ez-osasungarriak: belaunaldiz belaunaldi pasatzen dizkiete gurasoek seme-alabei. Azken hamarkadetan garatu da batez ere, ‘Amerikanizatu’ gaituzte-eta: denbora gitxiago daukagu janaria egiteko, eta gainera, prestatutako produktuen

eskaintza zabala dago supermerkatuetan eta ez dira batere osasungarriak: koipe gehiago daukate, edulkoratzaileak, egonkortzaileak, e.a. Lehen ez genuen horrelako substantziarik kontsumitzen.

—Gurasoentzako eskaintzarik baduzue?

—Horretan gabilta, izan ere, zertarako hezi umeak, ondoren gurasoek txarto elikatuko badituzte? Gainera, estresa, antsietatea, krisialdiek eta horrelakoek eragina dute txarto elikatzeagaz. ○

## Oroimena berreskuratzeko

Gerra Zibilari buruzko **jarduerak eta oroimenaren bulegoa** apiril eta maiatzean



Oroimenaren bulegoa: [www.leioa1936-1945.info](http://www.leioa1936-1945.info) eta 699 809 130

**Udalak eta Aranzadi** Elkartek Gerra Zibilari buruzko jarduerak antolatu dituzte hil honetan Kultur Leioan, eta horiekaz batera, Oroimenaren bulegoa zabaldu dute maiatzaren 11 arte. Antolatuzaileen asmoa da Leioako “*errealitatea 1936-1945 urteen artekoa ikertzea eta giza-eskubideen urraketa jasan zuten pertsona haien oroimena berreskuratzea*”.

Hainbat jarduera egongo da datozen asteotan. Apirilaren 17an *El Franquismo en Euskal Herria* liburua aurkeztu du Iñaki Egañak, liburuaren egileak, 19:30ean. Egun bi beranduago, apirilaren 19an, hitzaldia eskainiko du Francisco Etxeberriak: “Gorpuzkinak ateratzen, duintasuna berreskuratzen”,

hori ere 19:30ean. Apirilaren 26an, barriz, Lourdes Herrastik hitz egingo du, aipatu ordu berean, garai hartan emakumeek pairatu errepresioari buruz. Azkenik, hilaren 27an *El refugio* antzerkia ikusi ahalgo da 20:30ean.

Oroimenaren bulegoan, barriz, urte haietan Leioan errepresioa pairatu zuten pertsonen buruzko informazioa batu gura dute, eta datuakaz, “*gizabanakoen eta familien istorioak berrosatu, gure udalerriaren historian horiek jasota utzi eta argitalpen batean dena bildu*” gura dute. Horregatik eskatu dute herritarren laguntza. Eguazten eta eguenetan dago zabalik, Kultur Leioan bertan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. ○

## PINUETAKO NEKAZAL AZOKA, APIRILAREN 22AN

Urtero legez, Nekazal eta Abeltzaintza azoka egongo da Pinuetan udabarrian; aurten apirilaren 22an izango da, domekan. Goiz osoan ez da faltako zer gozatu. Euskal produktuz beteko dira 30etik gora postu: barazkiak, gazta, ogia, ezitia, pastela, sagardoa, ardoa, txakolina, pateak zein txarriak, danetik dastatu eta erosi ahalgo da Pinuetan. Gainera, abere-erakusketa izango da, baita baserriko lanbide zein herri-kirol erakustaldiak eta umeentzako tailerrak ere. Eta hori dena giro parebakoan; izan ere, txistulari eta trikitilariak animatuko dute eguna. 1999tik antolatzen dute azoka auzoan, urtero-urtero, hutsik egin barik.

## APIRILEAN ERE ODOLA EMON DAITEKE LEIOAN

Leioako Odol emaleen elkarteak noiz edo noiz gogorarazten du Leioan ere odola emoteko aukera dagoela. Apirilean, berbarako, data bitan egin daiteke. Batetik, hilaren 21ean, zapatuan, Sakoneta kiroldegia aurrean, 09:00etatik 14:00etara. Bestetik, apirilaren 24an, eguaztenez, Dosanle Leioako odol emale elkartearen lokalean (Aldapa 3, behe; sarrera Sakonetatik) emon ahalgo da, 16:30etik 21:00etara.

Info+: [dosanlei@gmail.com](mailto:dosanlei@gmail.com)

## SANJUAN JAIETARAKO KOADRILA BILERAK

Ekainaren 21etik 24ra ospatuko dira San Juan jaiak eta koadrilak hasi dira hamabostean behin elkartzen koadrila arteko proba programazioa lantzeko. Kultur Leioan elkartu ohi dira 19:00etan, eta oraindino lotzen dira hainbat bilkura, ondoko egunetan: apirilaren 18an, maiatzaren 2an, maiatzaren 16an eta maiatzaren 30ean. Horrenbestez, koadrila bateko kide bazara, eta 2012ko San Juan jaietan parte hartu gura baduzu, ez ahaztu aipatu egunok. Eta ondo pasa herriko jaietan!

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak


Lehendakari Agirre 2  
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



**BIZKAIA IRRATIA** Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

[www.bizkaairratia.com](http://www.bizkaairratia.com)



Aktualitatearen alde ezberdinak  
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**  
[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com) · 943 37 15 45

## [erandio]

Ines Bengoa > ipuin-kontalaria

“Ipuinek balio dute gure barruko mundua entzun, sentitu eta hobeto ulertzeko, besteak beste”

Ipuin japoniarrak kontatu ditu Ines Bengoak martxoan, bai Altzagan, bai Astrabuduan. Bitxia iruditu eta jakin-minez jo dugu lizarrar ipuin-kontalari honengana.

—Kamishibai ipuin japoniarrak, gauza bitxia ematen du, nolakoak dira?

—Gauza bitxia da: kutxatxo bat erabiltzen da irudi batzuen irudiak sartzeko eta kutxatxo hori irekitzean umeez irudiak ikusten dituzte, nik ipuina kontatzen diedan bitartean.

—Eta nola kontatzen dituzu ipuinak?

—Irudiak berez oso adierazgarriak dira, nik ahotsarekin eta soinuekin laguntzen dut. Irudiek bere zeregina dute, nik nire zeregina bilatzen dut.

—Antza, ipuin oso egokiak dira umeentzat, zergatik?

—Umeein oso ongi funtzionatzen du Kamishibaiak, batez ere txikiekin. Irudiak egotean arreta handiagoa mantentzen dute. Ipuin oso dibertigarriak dira, umeen parte-hartzea eskatzen baitute.

—Baina bestelako ipuinak ere kontatzen dituzu, ezta?

—Ipuin saio sorta zabala daukat. Umeentzako, Kamishibaiez gainera, beste motatako ipuin-saioak ere egiten ditut: barrengarriak, beldurrezkoak, entzun eta margotzekoak, e.a. Bestalde,



Info+: [www.inesbengoa.com](http://www.inesbengoa.com)

helduentzako ipuin-saioa ere egiten hasi naiz. Mundu mailako literatura-idazleen ipuinak kontatzen ditut ipuin horietan, besteak beste, Mario Benedetti, Quim Monzo eta Boris Vianenak.

—Ikastaroak ematen dituzu?

—Bai, antzerki eta ipuin-kontalari taillerak ere ematen ditut. Nire oinarria esperientzia da, bai antzerki lanean, bai ipuin-kontalari moduan. Azkenean, hamar urtez alor honetan lanean egon ondoren, antzerkia beste pertsona batzuekin konpartitzera animatu naiz.

—Esan duzunez, daborduko hamar urte darozu ipuinak kontatzen, zer berezitasun dauka arlo honek?

—Gauza asko, nire ustez; ipuinen munduak askorako ematen du: besteekin harremana izateko, irudimena zabaltzeko, gure barruko mundua entzun, sentitu eta hobeto ulertzeko, ahozotasuna lantzeko, gauza berriak ikasteko, egoerak beste ikuspuntu batetik ikusteko, e.a.

Esan bezala, askorako ematen du. ○

## Etxeak kooperatiba bidez

### Erandiogoikoan eraikiko dituzten babes ofizialeko etxeetatik herena, kooperatiban



Info+: 944 702 070 eta [www.jaurevisa.com](http://www.jaurevisa.com)

Erandiogoikoan ia 500 etxebizitza eraikitzeak dira eta, jakitera emon dutenez, horietako hainbat kooperatiba erregimenean egingo dituzte: etxe guztietatik %80 izango ei dira babes ofizialekoak, eta azken horien herena eraikiko dituzte, hain zuzen, kooperatiba erregimenean.

Gauzak horrela, Jauregizar SA enpresa sustatzaileak ekin dio bazkideak bilatzeko kanpainari, Erandioko bizilagunen artean; bazkide danak lortu ezean, inguruko herrietako biztanleei zabalduko liekete aukera parte hartzeko.

Beren-beregi, 204 etxebizitza eraikiko dute kooperatiba bitartez. Hiru eraikine-

ko urbanizazioa osatuko dute eta garaje zein trastelekuak izango dituzte. Logela biko etxebizitzak 65 metro koadro eta 130.000 euro kostako dira (gehi BEZ); hiru logelakoek, barriz, 76 metro koadro eta 152.000 eurotik gora balioko dute (gehi BEZ).

Bazkide izateko ondoko baldintzak bete behar dira: adinez nagusi izan, etxerik ez eduki jabetzan eta urtean 9.000 eta 39.000 euro arteko errenta izan. Bazkide izateko izena emon edo informazio gehiago eskuratu gura duena enpresa sustatzaileagaz ipin daiteke harremanetan: 944 702 070 edo [www.jaurevisa.com](http://www.jaurevisa.com). ○

## ARETO BARRIAK

### ALTZAGA KIROLDEGIAN

Areto barri bi atondu dute Alzaga auzoko kiroldegian, herritarren eskaerei aurre egiteko asmoz. Kiroldegiko lehengo kafe-tegiaren lokalean egin dituzte, 300 metro koadroko eremuan. Aretoetako bat, 100 metro koadrokoa, spinning egiteko erabiliko dute eta 15 bizikleta ipini dute bertan. Bigarren aretoa, ordea, hainbat diziplina-tarako erabiliko dute: gimnasia, aerobic, pilates eta antzekoetarako; gainera, beste gune bat beharko balitz, bitan bana daiteke aretoa. Bestalde, ur beroaren hoditeria-sistema ere aldatu dute eta hemendik aurrera, ordenagailuz kontrolatuko dute, tenperatura aldaketarik egon ez dadin.

## TAKOLOS ELKARTEAREN

### ARGAZKIAK LONDRESEN

Erandio nazioartean ezagutzera emango du Astrabuduko Takolos elkarteak; izan ere, *Erandio gauean* argazki erakusketa egiten ari da Londresen. Erandion gauz egindako 40 irudi eroan dituzte eta maiatzaren 31 arte ikus daitezke Oxford House erakustaretoan. Londreseko Euskal Etxeak lagundu die erakusketa antolatzen eta hari emongo diote bildutako dirua. Argazkilariak ez dira profesionalak eta herrian gauetan egin urteerak baliatu dituzte erakusketako irudiak egiteko; horrenbestez, Erandioko eraikinak, eskulturak edota monumentuak ageri dira argazkietan.

## ZAHARTZE AKTIBOA

### PROGRAMA ABIAN

Mugikortasun urriko pertsona nagusiei laguntza emoteko programa garatuko du Udalak apirillean, Integrandu fundazioagaz elkarlanean; *Zahartze aktiboa* izena ipini diote. Programagaz “*lehendik zeuden beste udal-zerbitzu batzuk osatu*” gura dituzte eta ondokoetarako lagunduko dituzte pertsona nagusiak: harreman sozialak garatzeko, ariketa fisikoa egiteko, administrazio-kudeaketan laguntza, e.a. Orain 12 pertsona laguntzen dute.

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)

# EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## WILT ETA ETA KARMELE? ANTZERKIAK, IKUSGAI

Antzerkigintzaz gozatzeko aukera izango dute sopoloztarrek apirileko azken aste akabuan. Apirilaren 28an, zapatuan, 20:00etan *Wilt, panpina puzgarriaren hilketak* nagusientzako antzezlanaren helduko da Kurtzio Kultur Etxera, sei euroren truke. Antzerkia Tom Sharpe idazle ezagunaren eleberriaren oinarritua dago, eta Henry Wilt pertsonaia xelebrearen istorioa kontatzen du. Hurrengo egunean, barriz, *Eta Karmele?* antzezlanaren txanda helduko da, Sekeko Gaztetxean, 18:30ean.

## LIBURUAREN EGUNA, APIRILAREN 21EAN

Liburuaren Egunaren harira, eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, hainbat jarduera antolatuta ditu Sopelako Udalak apirilaren 21ean. Goizeko 11:00etatik 14:00etara, Sopelako udaletxe plazan, Irakurtzeko txokoak, tailerrak, ipuin-karaoketa, erakusketa eta 'Galakta kodea' ipuin kontalaria egongo dira.

## FUTBITO TXAPELKETAREN 25. URTEURRENA

Maiatzaren lehenengo hamabostaldian hasiko da Sopelako Futbito Txapelketa, Ugeraga Aretoko Futbol taldeak antolatuta. Aurten 25 urte beteko ditu, eta bertan parte hartzeko, beharrezkoa izango da aurretik izena emotea ([www.sopelana.net](http://www.sopelana.net) udal webgunean). Txapelketa-finala sanpedrotan izango da.

## ZURE MUSIKA TALDEAGAZ JAIETAN JO GURA DUZU?

Sanpedro eta karmenetan zure musika taldeagaz kontzertua eskaini gura baduzu, ez izan zalantzarik eta jar zaitez kontaktuan Gazte Informazio Bulegoagaz! Parte hartzeko, taldekide batek gutxienez Sopelan erroldatuta egon beharko du, eta biografia eta diskoa eroan beharko ditu. Izena emoten dutenen artean zozketa egingo da.

## Aurrekontuak, eurrera 2012. urteko kontuak onartu ditu Sopelako udal bilkurak, Bilduren botoakaz



Gernika plaza oinezkoentzat egokitu gura du Udalak

**Hartu-emon** luzeen ostean, 2012. urteko aurrekontuak onartzeko akordioa lortu du Sopelako Udalak. 13,9 milioiko kontuak %12 murriztuko dituzte, baina Udalaren arabera, "horrek ez du esan gura zerbitzuak murriztu direnik, kostuak jaitsi direla baizik". Kontuak Bilduren aldeko zazpi botoakaz, EAJko zazpi zinegotzien abstentzioagaz eta PSE-EEko zinegotzi bien eta PPko zinegotziaren aurkako botoakaz onartu dira.

Inbertsioetarako 1,8 milioiko saila gorde du Sopelako Udalak. Horregaz,

Gernika Plaza oinezkoentzat egokitzeko proiektua eurrera eroango dute. Hala-ber, Iberre inguruan igogailua jarriko dute, eta Sopelmarren biribilgunea eraikiko dute, bertako auzokideek hala eskatu dutelako. Arriatera auzoan, bere aldetik, umeentzako ekipamenduak eraikiko dituzte.

Garraio publikoari dagokionez, Sopelbus zerbitzua urte osorako luzatuko du Udalak. Gazteria arloan, barriz, skate-park-a eraikiko du Udalak, aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan gazteek egindako eskaria izan zelako. ○

Davinia de Diego > artisaua

"Beirazko bitxiak nire tailerrean egiten ditut: bertan hasi eta amaitzen da prozesua"



Lemoizen dago sopoloztarraren tailerra

**Maiatzaren 5ean** ospatuko da Sopelako Artisanautza Azokaren X. edizioa. Larrabasterrako Urgitxietan plazan artisauek euren postutxoak jarriko dituzte, eta laugarren urtez, bertan izango dugu Davinia de Diego sopoloztarra.

—Zelan hasi zinen artisautzan beharrez?

—Lehen haurtzaindegi batean egiten nuen behar, baina beharra utzi eta nire aitagaz bere tailerrean beharrez hasi nintzen. Berak beirazko muralak, atek eta horrelakoak egiten ditu. Apurka nire lantxoak egiten hasi nintzen bertan: hautsontziak, mahaletako dekorazioa... eta azkenean bitxiak egiten amaitu ditut!

—Beraz, zure kontura ikasi duzu...

—Bai, autodidakta naiz, apurka-apurka nire kontura ikasi nuen.

—Eta azkenean Sopelako Artisanautza Azokako beterana bihurtuko zara! Zein da zure aurtengo eskaintza?

—Laugarren urtez parte hartuko dut azokan. Batez ere bixigintzan espeziali-

zatu naiz, eta hori eskainiko dut nire postutxoan: eraztunak, lepokoak, belarrirakoak, pultserak e.a. Produktu danak urrutako beiragaz eta zilarragaz egiten ditut. Produktu bakoitza egiteko denbora nahikotxo behar dut: diseinatu, labean sartu, kakoa jarri e.a. Prozesu guztia nire tailerrean egiten dut: hemen hasi eta hemen amaitzen da.

**«Autodidakta naiz,  
apurka-apurka  
nire kontura ikasi nuen»**

—Etorkizunean, honetan jarraitu gura zenuke?

—Bai, nire produktuak salduko dituen denda zabaltzea jartzen dut erronka bezala, baina egoera ekonomiko honetan gaitza ikusten dut... Gainera eskuz egindako produktuen prezioek ezin dute lehiatu fabriketan egindakoakaz. Baina aurrera goaz, jendeak eskuz egindako lana ere baloratzen duelako! ○

Info: [www.daviniaadediego.com](http://www.daviniaadediego.com)

## DIDAK hamilton IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Aleman

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

## OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
[oinutsik@euskaltel.net](mailto:oinutsik@euskaltel.net)




**OINAK DITUZU  
ONGIZATEAREN  
ZUTABE, OINEZ  
EDONORA HEL  
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

# Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak  
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea  
Etxalde 2 - Pabiloi 11  
48630 Gorniz

Mob.: 607 148 346  
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

## LIERNI ARMENTIA, PIROPO LEHIAKETAREN IRABAZLE

Piroporik ederrenaren saria jaso du Lierni Armentiak "Nire gauak argitzen dituen izarra zara" piropoari esker. Bigarren postuan Iraia Lugarezaresti lotu da: "Ez dizut esaten nire bizitza, baina bai nire maitea, bizitza bukatzen delako eta gure maitasuna ez". Hirugarren, barriz, Aiara de Urreta izan da: "Olerki laburrenaren bertsoak politenak bi hitz baino ez ditu, maite zaitut". Zorionak, eta orain gura duzenari bota!

## IPIIN KONTALARIAK ETA ANTZERKIA, ANTZOKIAN

Liburuaren Egunaren harira, literaturagaz lotutako hainbat jarduera izango ditu apirila akabuan Berango Antzokiak, Santa Anan. Apirilaren 21ean 18:00etan Kubako eta Haitiko ipuin kontalari bi helduko dira. Hilaren 28an, barriz, *Aqui va a pasar algo* antzezlan izango da, 19:00etan Zanguano taldearen eskutik. Apirilaren 29an 18:00etan, barriz, Afrikako Ipuinak saioa izango da.

## BERANGO 'PASIO' BARIK LOTU DA AURTEN ERE

Bigarren urtez, ACADAE elkarteak ez du 'Pasioa' antolatatu Aste Santuan. Arrazoiak izako berberak dira: jende falta. Fernando Ansoleaga antolatzaileak adierazi duenez, aurten ere ez dute parte-hartzaile nahiko izan antzezlan egiteko. 32. edizioa izango litzateke aurtengoa. Hurrengo urtean barriro antolatzen saiatuko direla baieztatu dute.

# Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI  
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

## Gazte-lokalak arautuz Berangoko Udalak herriko gazteen lokalak kudeatzeko araudia onartu barri du



Lantzarten, Kurtzen edo Axganen batzen dira gazteak

**Beste** herri batzuetan gertatu den legez, gazteek erabiltzen dituzten 'lonjak' edo lokalak arautzeko asmoa du Berangoko Udalak. Martxoaren 22ko ohiko udal-bilkuran behin-behineko hasiera emon zioten araudiari, eta horren arabera, gazte zein jabeek hainbat baldintza bete beharko dituzte aurrantzean.

Gazteak Berangoko hainbat auzotan batzen dira egun: Kurtze, Lantzarte, Axgane edo Karabiganen kasu. Izan ere, Udalaren arabera, herriko lau lokalatan arazoak sortu dira auzokideakaz.

Araudiak betebeharrak ugarri ezartzen dizkie gazteei: gehienezko ordutegia bete beharko dute, ezin izango dira hamabost lagun baino gehiago batu, lokalaren kide direnen zerrenda pasa beharko dute e.a. Ez betetzekotan, hiru mila eurotako isunak ere jaso ahal izango dituzte.

Araudiak EAJ, PP eta PSE-EEren aldeko botoak egin zuen aurrera, behin-behinean. Bildu eta EB-ek aurka bozkatu zuten; euren ustez, gazte, auzokide eta jabeen parte-hartzea sustatu ez delako eta araua zigortzailea delako. ○

## Urdulizko gazte-asanblada > udabariagaz loratu barri

"Gazteon betebeharrak guk geuk ase behar ditugu"



Martxoan ama-lurraren alde aritu dira gazteak

**Jaio barria** da Urdulizko gazte-asanblada; izan ere, otsaileko lehen astean ekin zioten gazteek herrian batzeari. Jaiozaren lekuko izan gura izan du UK aldiakariak, horregatik, Gotzon Batikon asanbladako kideagaz izan gara. Hark lehen urratsen berri eman digu. —Zein ekarpen egin gura diozue herriari?

—Gu bide bitatik joango gara; alde batetik, autogestioaren bidea landu gura dugu, uste baitugu gazte-lokalak gazteok kudeatu behar ditugula; beste alde batetik, gazteak, oro har, aktibatzea dugu helburua. Herria nahiko pasiboa da, horregatik, gazteak aktibatu gura ditugu, herria piz dezaten.

—Gaztelekua sortzeko prozesuan dago eta herriko gazteen parte-hartzea eskatzen du...

—Lehenik eta behin, esan behar dugu egunkariaren bidez prozesu parte-har-

tzalearen berri izan genuela, eta erabaki genuen proposamen bat egitea, eta guk sortutako proiektua aurkeztea. Proiektu horretan adierazten dugu gazteon beharrik gazteok ase behar ditugula.

### «Urdulizko herriaren harrera harrigarria izan da»

—Zein da zuen aurtengo helburua —Aurten, hil bakoitzean landuko ditugu gai ezberdinak; orain arte, euskal kultura landu dugu, eta martxoan ama-lurraren inguruan ibiliko gara, herria pizteko helburuagaz. Bestalde, autogestioaren aldeko sinadurak batzen ari gara. —Orain arte zer egin duzue? —Martxoaren 10ean aurkezpena egin genuen herrian, eta herritarren erantzuna sekulakoa izan zen; harrera oso ona egin zigun herriak. Gauzak antolatzen ere lagundu ziguten.○

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

Torre 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com

*irati*

OPARIAK MODA GAZTEA

COMERCIAL de LIMPIEZA  
**VILLAR S.A.**

**Harrizko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

## Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz

**AIXERROTA BHI**

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

## MAIATZEAN TAILERREN ERAKUSTALDIA PLENTZIAN

Datorren hilean tailerretan egindako eskulanak erakusgai jarriko dituzte Goñi guneko kulturean. Maiatzaren 2tik 15era bitartean izango dira ikusgai ehoziri, kakorraz edota gurutzte-puntu tailerretan egindako eskulanak. Hurrengo asteetan, barriz, maiatzaren 16tik 31ra, hain zuzen, pintura ikastaroko partaideek egindakoak ikusgai egongo dira guneko kultural berean.

## LEMOIZEN HAMABOST ETXEBIZITZA LORTZEKO EPEA ZABALIK

Azpiegitura Sozietate Publikoak Lemoizen eraikitako dauden 15 etxebizitza lortzeko eskabidea betetzeko epea zabaldu du. Horretan interesa duenak aukera izango du apirilaren 20ra arte eskabidea betetzeko. Etxebizitzek 112.000 euroko prezioa izango dute. Informazio gehiago sustatzailearen web-orrialdean dago, hau da: [www.azpiegiturak.bizkaia.net](http://www.azpiegiturak.bizkaia.net)

## NORDIC WALKING IKASTAROA GORLIZEN

Kirol mota hau herrian bultzatzeko helburuagaz abiatuko dute apirilaren 21ean Nordic walking ikastaroa. Kirola eski-bastoi antzekoakaz ibiltzean datza. Bere izenak esaten duen legez herrialde nordikoetan dauka jatorria, bertan praktikatzen baita.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## Gorliz

*Oporrak bakean* programa **senide bila** udan Saharako umea etxean hartzeko



Gura duten sendiek apirilaren 20ra arte izen-ematea izango dute

**Urtero legez**, 2000 urtetik hona, aurreko herri Gorlizko Udalak bat egin du Oporrak Bakean programagaz. Aurten oraindino familia falta duen umearentzat familia bila ari dira. Horrela, inor harrera-familia izateko prest badago Gorlizko Udalgaz harremanetan jarri behar du. Gorlizko Udalak herri sahararrarekiko elkartzasuna adierazteaz gain, bertako gatazka konpontzearen alde egin du urteetan. Gorlizek hartutako konpromisoa 2001eko martxoaren 18an gorpuztu zen, Auserd probintziako La Güera (Aljeria, Tindouf) herriagaz senidetu zirenean.

Horrenbestez, urtero hainbat familiak Saharatik etorritako umeak hartzen dituzte, iaz, 3 senidek hartu zituzten haurrak. Umeak hilabete bi egoten dira Gorliz, uztaile eta abuztuan, hain zuzen. Hemen uda igarotzeak aukera ematen die Saharako umei udaldian basamortu

tuko tenperatura itzeletatik ihes egiteko, eta askotariko elikadura hartzeko, batik batik, elikagai freskoak, hala nola, fruta, barazkiak... Umeentzat bitaminapakete bat da hemen egotea, eta horrek laguntzen die basamortuan dauden gainerako hilei aurre egiten. Gainera, he-

### Saharako umeak hil bitan, uztaile eta abuztuan hemen

men dauden bitartean mediku-azterketak, hagineta osasun-kontrola zein ikusmen-azterketak egiteko aukera ere badute. Oporrak Bakean programaren arduradunak udalean adierazi digunez "esperientzia atsegingarria da bai harreraren-familiarentzat baita haurrentzat ere". Zalantza barik, Saharako umea etxean hartzeak dakar beste kultura bat ezagutzea eta esperientzia aberasgarriaz gozatzea. ◯

# Api. 15 - Mai. 07

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### PLENTZIA

► **Keltse Maciasen margolanak.** Apirilaren 27ra arte. Goñi Portalen.

### ERANDIO

► **Takolos Radio Klubaren argazkiak Erandiori buruz.** Apirilaren 27ra arte. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean.

### GETXO

► **Euskal akuareleriaren elkartea.** Apirilaren 29ra arte. Algortako Torre aretoa.  
► **Zirimarra arte tailerra.** Apirilaren 30etik aurrera. Algortako Kultur Etxeko aretoa.

## ZINEMA

### GORLIZ

► **Zine-kluba: Hasta que llego su hora.** Apirilak 18, 19:00etan. Sertutxenan.

### BERANGO

► **Zine-foruma: Agua.** Apirilak 19, 18:00etan. Berangoeta Kultur Etxean.

### ERANDIO

► **Los Idus de marzo.** Apirilak 29, 19:30ean. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. 2 euro.

## ANTZERKIA

### BERANGO

► **Munduko ipuin-kontalariak.** Apirilak 21, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

### ERANDIO

► **Hil arte bizi.** Apirilak 21, 19:30ean. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Doan.



Anakrusa taldeak *Tempus-i* lana eskainiko du apirilaren 20an

### ► Dantza

#### Dantza ikuskizunak Kultur Leioan, apirilean

Dantza-zaleak zorionekoak hiltz honetan! Izan ere, Leioan ikuskizun bigaz gozatzeko aukera edukiko dute, Kultur Etxean. Lehena izango da apirilaren 20an: *Tempus-i* ikuskizuna eskainiko du Anakrusa euskal dantza taldeak, 20:30etik aurrera, Auditoriumen. Dantza-antzerki formatoa dauka lanak eta *Dantza zirkuitoa* ekimenaren barruan dago; sarrera 10 euro ordaindu behar da. Bigarren ikuskizuna, barriz, La Permanente andaluziar taldeak eskainiko du apirilaren 23an, Ambigu aretoa: *Una palabra*. Saio bi egingo ditu, bata 19:00etan, bestea 20:30ean, eta 6 euro ordaindu behar da sarrera; emanaldiok *Dantza eszena* ekimenaren barruan daude.

• **Non:** Kultur Leioan • **Noiz:** Apirilaren 20an eta 23an

► **Dantzaren Eguna.** Apirilak 22, 11:30ean. Altzagako metro alboan.  
► **Umore bakarriketa: Alex Clavero.** Apirilak 22, 19:30ean. Astrabuduko Kultur Etxean. 3 euro.

### SOPELA

► **IPUINEZIPUIN.** Apirilak 22, 18:00etan. Kurtzion. 3 euro.

### LEIOA

► **El bosque de Grimm.** Apirilak 22, 18:00etan. Kultur Leioako Auditoriumen. 5 euro.

► **El refugio.** Apirilak 27, 20:30ean. Kultur Leioan. 12 euro.  
► **Capas (zirkoa).** Maiatzak 5, 19:00etan. Kultur Leioan. Nagusiek 10 euro eta umeek 5 euro.

### GETXO

► **Ipuinaren ordua: Hortzak erakutsi.** Apirilak 26, 18:00etan, Villamonteko haur-liburutegian. Doan.  
► **Txirulari magikoa.** Apirilak 29, 18:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 4 euro.

## GORLIZ

► **Ipuin-kontalaria.** Apirilak 28, 18:30ean. Sertutxenan.

## MUSIKA

### ERANDIO

► **Erandioko Musika Banda.** Apirilak 20, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrea. Doan.  
► **Kontzertu korala.** Apirilak 21, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrea. Doan.

### GETXO

► **Zapatotipobota.** Apirilak 19, 20:00etan. Areetako Glass kafetegian. Doan.  
► **Last night.** Apirilak 26, 20:00etan. Algortako The Piper's Irish Puben.

### BERANGO

► **Lamine M'Bengué trobadorea.** Apirilak 29, 18:00etan. Berango Antzokian. 3 euro.

## BESTEAK

### GORLIZ

► **Lore eta landare azoka.** Apirilak 15, goizez. Pilotalekuan.

### ERANDIO

► **Martxa zikloturista: Erandio-Erandio.** Apirilak 21, 09:00etan. Irailaren 23a plazatik.  
► **Hitzaldia: 1969ko Erandioko gertakariak.** Apirilak 23, 20:00etan. Astrabuduko Kultur Etxean.

### SOPELA

► **Esaera zaharren txapelketa.** Apirilak 21, egun osoan zehar.  
► **Liburu aurkezpena: Breve historia del anarquismo vasco.** Apirilak 20, 19:30ean. Plaza Beltza kulturgunean.



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!


BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



# Hondarra garbi!

Laster helduko da hondartzarako sasoia, eta erabili aurretik, garbitu beharra dago. Herritarrek ere laguntzen dute, barbarako, irudiotan ageri diren Gobela, Begoñazpi eta Aixerrota ikastetxeetako ikasleek; martxoaren 23an ibili ziren garbiketean. Pakea Bizkaiak antolatu zuen ekimena, Getxoko Udala eta Surfrider fundazioagaz alkarlanean. Hurrengo domekan, Marefundum, RKbentura eta Cabo Billanokoek garbitu zuten.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

## Getxoko trolebusa

handik-hona ibiltzeko beste modua

Eurreko mendearen erdialdean tranbiaren lekua hartu zuen trolebusak. Antzinekotasunak eta modernitateak uztartzen ditu argazkiak; izan ere, ibilgailu elektrikoa gurpilakaz ikus dezakegu, eta gaur egun ere horretara ei goaz. Gasolina eta gasolioaren alternatibatzat agertzen zaizkigu-eta, sarri, ibilgailu elektrikoak. Eta hortxe; atzera begirada bota eta XX. mendean horrelakoak aurki ditzakegu non eta gurean! Esaten dutenez, ezer gitxi da barriztatzaila; iragana izan ohi dugu inspirazio-iturri, eta kasu honetan, herri-trolebusak zirenak auto elektriko eta modernoak bihurtu gura dugu.

[berbetan]

Orain urte bi erein zuten Mikel Kazalis (Estigia, Negu Gorriak, 2 Kate, Anestesia, Kuraia), Aitor Abio (Pi L.T.), Fernando Sapo (El Corazon Del Sapo, Kuraia, Estricalla) eta Txarly Diaz (Anestesia, Gutural) musikari ezagunek Matxura taldearen hazia; eta iaz emon zuen fruitua, taldearen izen bereko *Matxura* (Bonborenea, 2011) estraineko diskoa. Talde barriaren doinuak entzuteko aukera egongo da apirilaren 14an Algortako Txorimalo gaztetxearen urteurrenean. Mikel Kazalisegaz (Zarautz, 1968), askorentzat Mikel “Anestesia” legez ezaguna, berbetan jardun dugu atzoko eta gaurko euskal musika munduaz.

# Mikel Kazalis

## Arriskatzeko adrenalina isuria!

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Argazkipress**

—Zer eskaintzen duzue, edo eskaini gura duzue, musika eta letren aldetik, talde eta disko barriokaz?

—Esan beharra dago, danok gatzozela talde ezberdinetatik lehenagotik ere; baina, oraingo honetan pixka bat formula ezberdina erabiltzen ari garela. Rock musika musika elektronikoaren elementu batzuekin nahastu dugu, orduan, gure aurreko beste taldeekin konparatuta, pixka bat zerbait experimentalagoa edo gelditu da. Bestalde, luxu hutsa izan da disko honetan izan ditugun kolaborazioak. Normalean ez nago oso ohituta kolaboratzaileak-eta sartzera nik egindako diskoetan, baina oraingo honetan lagun ditudalako eta kasualitate batzuegatik... Esaterako Oreka Tx-ekoekin kointziditu nuen, hemen Zarautzen entsaiatzen dute, hemen dute lokala eta hemen bizi direlako... Ezagutu nituen, eta hasi ginen esaten elkarrekin zerbait egiteko-eta; azkenean, gure oinarri elektroniko eta beraien harri eta makila organikoekin nahastu ditugu, eta “Beranduegi” kantan nahasketa oso berezia atera da. Gero, luxuzko beste

kolaborazioa Ander Lipus aktorearena izan da. Aktore bezala miresten dudana, eszenatokian ikusi dudalako eta ikaragarria da! Baina, gero, pertsonalki ezagutze-ko aukera izan nuen, eta hitz egiten-eta bada elkarrekin zerbait egitea ondo egongo litzatekeela eta... Eta gure disko honetan bazegoen tarte bat mitin bat irakurri behar zen eta bera zen aproposena mitin horri ahots indartsua jartzeko. Horretaz gain, Joseba Poncek, lehen nirekin Kuraian jotzen zuena eta Dut-ekoa, abesti

baten musika egin digu, “Zer uste zenuen!” abestiarena. Eta abesti horren hitzak ere, Zarauzko bertsolari poeta batenak, Imanol Epelderrenak dira.

—Rock industrialia edo punk-metal elektroniko lako etiketapean aurkeztu taldearen musika estiloa, ez dakit etiketen kontrakoak zareten, baina ados egongo zinake?

—Zale ez, baina beti balio izaten du erreferentziaren bat izateak; oso zaila delako hitzekin adieraztea musika zer den. Baina, balio dezakete, rock industrialia deitu izan zaio gutxi gorabehera estilo honi, eta punk-metal elektroniko ere sar daiteke, hiru horien eraginak ere baditugulako, beraz, bai. Bestalde, letren aldetik, ezkorrak direla esaten digute; ez dakit ezkorrak ala errealistak, edo errealitatearen parte ilunari begiratzen diogun gehiago, baina, bai, badira. Beti esan dut ardatz nagusiak

**“(letrak) ez dakit ezkorrak ala errealistak (...); ardatz nagusiak misantropia eta askatasuna dira”**

misantropia eta askatasuna direla. Misantropiari dagokionez, gizakia ikusten dugulako planeta honen gaitzik handiena, eta aztertuz gero zein gaizki doan dana, askotan, beti dago hominido perbertitu hau, alegia, gizakia, guztiaren atzean. Eta, askotan esaten dugu, seguru asko, birus hau sendatzeko onena izango litzatekeela geu, gizakiok, birus hori, desagertzea pla-





netatik. Bestetik, askatasunari dagokionez, gure gaurko gizarteari begiratzen badiogu, nahiz eta ustezko gizarte libre batean bizi, ikusten dugulako askatasun asko oraindik ere ez daudela eskuragarri.

—Egin duzuen “Suizidio herrikoia” bide-oklpean ere etorkizun baltzeko ikuspegia duzue...

—Hor adierazten da pixka bat oraintsu esaten nuena. Ironikoa da, noski; ironia ere asko erabili dugu; baina, ironiaren atzean, askotan, egia esaten da. Kontua ez da guk, zuzenean, proposatzen dugula “ea, goazen, bada, danok suizidatzer!”, baina, nolabait, horren atzean dagoen mezua hau da: pentsaraztea, seguru asko, bakea, bake santu hori, beti ahotan dugun bake santu hori lortzeko formularik eraginkorrena, seguru asko, gu desagertzea izango litzatekeela; bestela, bueltak eta bueltak ematen dizkiogu guztiari, eta ez dugu bakerik lortzen inoiz.

—Kide izan zaren, besteak beste, Anestesia, Negu Gorriak zein Kurraia lako taldeak oso ezagunak izandakoak dira; horietan jarduteak zer emon eta zer “kendu” dizute? Zerbait kendu badizute, behintzat.

—Zaila egingo litzaidake taldez talde bereiztea... Orokorrean, agian, esango nuke: eman, kristoren esperientzia! Neuk berez askotan sentitu dudalako hau egin izan ez banu, ez dakit, ez nukeela jakingo zertara etorri nintzen mundura! Beti izan da... gazte-gaztetatik ikusi dut hau zela nire bidea, honekin sentitzen nintzela ondo! Eta eszenario gainean sentitzen diren sentsazioak niretzat ikaragarriak dira! Ez nuke jakingo nola adierazi zer den hori... klimax-a! Eta bidaiatzeko aukera ere eman didate, bestela ni ez naizelako oso bidaiaria, eta seguru asko, ez, seguru, ezagutzen ditudan herri gehienak ez nituzkeela ezagutuko musika joko ez banu. Eta kendu? Beno, osasun pixka bat ere kentzen du. Esan behar dugu bere alde gogorra ere badaukala, beti gauez, eta konturatzerako hor parranda giroan sartuta zaude, eta lu-

zaten da gaua... Bai, osasun pixka bat ere kentzen du!

—Aipatutako hiru taldeak, bakoitza berean, baina sasoi edo garai diferentetako erreferente izan daitezke...

—Bai, egia da, egon izan naizen talde gehienetan momentu horietan nolabait berritzaileak ere izan direla, Euskal Herriko panoraman, behintzat. Eta berritzaileak

### “Askotan sentitu dut hau egingo ez banu, ez dakit, ez nukeela jakingo zertara etorri nintzen mundura!”

izateaz aparte, arrakasta pixka bat edukiz gero, orduan, erreferentzi-modu bat bihurtzen direla. Baina, egia da, batez ere, geroa, beti horrela ikusten dela, alegia, “talde arrakastatsuan ibili zara...” esaten didate, baina momentuan, askotan, arrisku moduko bat zuten taldeak ziren, hasiera haietan. Inoiz ez genekien... Adibidez, Negu Gorriak-en kasuan, ni taldean sartu nintzen dagoeneko taldea martxan zegoenean, eta ikusten zen ordurako taldea nahiko arrakastatsua-edo zela. Baina, nire beste apustuak, hasiera batean, ez ziren batere seguruak zentzu horretan, beti izan dira momentu horretan Euskal Herri mailan egiten ez zen musika, gutxi gorabehera, eta arrisku puntu batekin edo apustu bat bazegoela horren atzean... Eta gero, zorte pixka bat ere eduki dugu, eta batez ere, inpor-

### “Orduan, gaur egun faltan botatzen dut, bai, gazteengan, (musikan) arriskatzeko gogo hori!”

tanteena da, sinestea egiten duzun horretan, eta aurrera!

—Musikari esperientzia pertsonalaz gainera, Fidelenea Estudioak ere talaia ezinhoba da euskal musikaren panoramari erradiografia egin ahal izateko. Horren bestez, zelan ikusten duzu egoera?

—Egia esan, azken urteetan gustatzen zait

aniztasuna egon delako, gero eta estilo ezberdin gehiagoko taldeak daudelako, hobe esanda, egon direla. Orain, atzera pauso bat bezala ikusten ari naiz, batez ere, gazte jendearen artean. Garai batean irekitzeko gogo hori egon zen, orain ikusten dut atzeraka egin duela horrek; gaur egungo gazte-gazteak, 20 urte ingurukoak, egiten ari direla edo... begiratzen ari direla,

gehien bat, orain dela 20 urte, edo gehiago, egiten zen musikari. Orduan, gaur egun faltan botatzen dudana, bai, gazteengan, arriskatzeko gogo hori.

—Horregaz lotuta, azken aldian, musikari ezaguneri entzun diegu, “nekatuta-edo”, Euskal Rock Erradikalaren eta ostekoagaz amaituko duen taldeen, sasoiaren, esperoan daudela.

—Egia da azken 10-15 urte hauetan egon dela zerbait, nahiz eta oraindik txosnetan betiko taldeak entzuten genituen, eta beti esaten genuen: ez al dago hemen erreleborik?! Baina, nik uste, 90. hamarkadan eta geroxeago, egon zela horrekin hausteko joera edo, estilo aldetik-eta. Baina, gaur egungo gazte horiek, lehenago esaten nizekizun horiek, ari dira berriro ere erabat musika horri begira, punk oil!, patxanga

edo ska... Beraz, gaur egun, bada kezkarria zentzu horretan, hauek ere, berriro, betiko, txosnetako zinta hori entzuten dabilzala emoten duelako.

—Gaztetxeetako oholtzetan lehen ere pua andana galdutakoa izango zara eta orain ere Matxuragaz horietatik bazabiltzate; giro horretan, denboran, aldaketa-

rik nabaritu duzu?

—Alde batetik, izan dira etapa ugari; bestetik, herri bakoitzaren arabera ere, bakoitzak gaztetxe eredu bat eduki izan du... Bestalde, egia da, nik hiru urte eman ditudala jo gabe, egia esan, orain hasi naiz berri ere tenperatura hartzen giro horri. Anestesiarekin joatzeari utzi genionetik, azken kontzertua egin genuenetik, jada

baina... badirudi baietz. Ikusle bezala ere, antzekoa sumatu dut, hainbat kontzertutara joan naizenean, 10 pertsona edo egon gara... Edota, behin, gogoan det, neu bakarrik azaldu nintzela kontzertu batera! Beraz...

—Bestelako giroetan, barbarako, plazetan edo areto itxi handiagoetan ere, jende kopuru gutxiago hurbiltzen dela eta na-

### “Garai batean, nahiz eta talde oso ezagunak ez izan, joera bazegoen kontzertuak ikustera joatekoa-eta...”

hiru urte pasa dira... Esaten dute, entzuten duzu, jaitsi egin dela, jendeak joera gutxiago daukala gaztetxeetara joateko, eta oraingoz, ezin dut horrelako analisi handiegirik egin, oraintxe hasi garelako, hiru kontzertu besterik ez ditugulako egin, baina,

baritu duzue?

—Horrelakoetan, ia kasu oso konkretuetara joaten zara, aretoetara-eta, hor ere talde oso ezagunak badira oraindik ere jarraitzen dute lekuak betetzen... Baina, garai bat egon zen, nahiz eta talde oso ezagunak ez

izan, joera bazegoena kontzertuak ikustera joatekoa-eta... Gaur egungo gazteriak, nik uste dut, beste aisialdi joera batzuk dituela... Beraien lokaletan elkartu, edo beste “sekta” modu batzuk egin...

—Laburbilduz, musikari izanik eta musika zale legez ere, zer botatzen duzu faltan Euskal Herriko musika munduan?

—Nik botako nuke faltan arriskatzeko gogo! Benetan sorpresa eragingo lidakeen zerbait entzutea! Tarteka ateratzen dira gauzak, baina, orokorrean, eta batez ere, lehen esan bezala, gazte jendearen artean, ez didate inongo sorpresarik sortzen; kontrakoa baizik. Uste dut punk oil! Eta ska formula hori, jo! Bere garaian izan zuen Euskal Herrian indarra, baina hortik aurrera aukera oso zabala dago, mila estilo edo nahasketa egiteko! Eta, nire ustez, Euskal Herrian oraindik falta zaigu puntu hori, arriskatzeko puntu hori! o

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
 Kalea & zenb.....Herria.....  
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
 Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tf. 94 491 13 37



## Bardintasunaren alde

*“Bardintasunaren alde norberaren konpromisoaren beharra” nabarmendu gura dute, egitasmo honegaz, Erandioko Tartanga institutuko ikus-entzunezkoetako ikasleak, “jendarte justuagoa eskuratzeko, sentsibilizazioa helburu”. Proiektu bik osatzen dute egitasmoa: batetik, “larrosa-urdinez gerrarako pintaturiko emakume edo gizona” lanak, metro geltokietan ikusgai egon zenak; bestetik, Erandioko merkatarien argazkiak, “egunerokotasunean enpatiaren zioaz” lanak. Martxoaren 8ari begira osatu zituzten proiektuok eta, gitxienez, zer pentsatu emoten dute.*

Argazkiak: **Tartanga GBLH Institutuko ikasleak**








**Biladi Hadi liburua** > Hamaika begirada Palestinari, Euskal Herritik

## Elkartasun begiradak Euskal Herritik Palestinara, hitzez eta kantuz

2010eko udan elkartasun brigadak joan ziren Euskal Herritik Palestinara. Hainbat alorretako lagunek parte hartu zuten eta, han batutako argazkiak eta Euskal Herrian sortutako testuak liburua osatu dute: *Biladi Hadi*. Euskal abeslarien kantak batzen dituen disko batek biribiltzen du lana.

*Biladi* hitza aberria da arabieraz eta euskaragaz jolasa egin gura izan dute Biladi Hadi egitasmoa izendatzeko; Komite Internazionalistak, Askapena eta Euskal Herria-Palestina sarea osatzen duten lagunek garatu dute. Palestinara brigada burutu zuten 2010eko udan eta bertan batutako argazkiez liburua osatu dute ondoren. Argazkioi gehitu dizkiete euskaldunen hainbat testu eta abesti. Guztiak osatzen dute Biladi Hadi CD-



Liburuaren azala

liburua; Durangoko Azokako testuinguruan kaleratu zuten.

Hamaika alorretako euskaldunek parte hartu dute egitasmoan: kazetariak,

musikariek, pailazoen, bertsolariak, aktoreak, zinegileak, ikasleak, politikariek, e.a. Batzuk Palestinan egon ziren, eta

### “Hamaika alorretako euskaldunek parte hartu dute *Biladi Hadi* egitasmoan”

beste batzuek, barriz, testuak idatzi eta abestiak konposatu dituzte.

Asmoa honakoa izan da: Palestinan ikusi eta jasotakoa ezagutzera ematea ohikoaz bestelako ikuspegi batetik: izan ere, Palestinari eta hango gaztazkari buruz informazio asko dago, horregatik, han ikusitakoa ahalik eta ondoen azaltzeko erabili dituzte argazkiak; 60 irudi adierazgarrienak hartu dituzte. Horregaz batera, herrialde hartan gertatzen dena



Argazkilaria: Irantzu Pastor

kontakten dute kapitulu bitan, baina palestinarren berbetan. Liburua aurkezteko lanetan murgilduta daude orain, Euskal Herrian barna, hitzaldi eta erakusketa bitartez: liburuko hainbat argazki eta testu osatzen dute eta Ermuan ikus daiteke egunotan.

Bestalde, *Israeli Boikot* nazioarteko

kanpainaren barruan ekarpena ere izan gura du liburua: “*Israelek nazioartean eman gura duen normaltasun itxura hori onartzen ez dugula eta apartheid amaitu arte ondo etorriak ez direla izango adierazteko*”. Eta hasieratik horixe zen brigadaren asmoa: liburua osatzea. Halere, indar handiagoa hartu zuen proiektuak

Palestinatik bueltan, orduan eman baitzioten forma.

Ildo horretan, bidaia ez da oroigarri hutsa izan brigadistentzat. Aitzitik, han ikusi eta ikasitakoaren barri emateko konpromisoa hartu zuten, bakoitzak bere esparruan zabalduz; horregatik, helburua baino, tresna da liburua. Egileek dioten bezala, “*urrats txiki honek ekar ditzan beste urrats batzuk*”.

Hain zuzen, horregatik kokatu dute liburua ekimen handiago baten barruan:

### “Palestinaren okupazioagaz amaitzeko urrats handiak behar dira”

Israeli boikota. Egileen iritziz dinamika hori handitu beharra dago: “*Palestinaren okupazioagaz amaitzeko ekimen hau ez da nahikoa eta beste dimensio bat hartu behar du; salto askoz handiagoa eman behar du*”. Urrats batzuk eman dira eta zentzu horretan kokatzen dute liburua ere: “*hausnarketarako tresna izatea gura dugu eta boikotaren ildoan kokatzen dugu, bide horretan urrats handiagoak eta indartsuagoak emate aldera*”. ○

**Axier Lopez** > Brigada-kidea eta liburuaren koordinatzaileetako bat

## “Nazioarteko laguntza ezinbestekoa da Israeli aurre egiteko, inork ez baitu zigortzen bere jarduna”

—Egitasmo honetan parte hartzea zelako esperientzia izan da?

—Bestelako brigadetan parte hartu dut, baina Palestinatik hunkituago itzuli nintzen. Bidaia oso bizia izan zen, bertakoekin hartu-eman handiarekin. Denok utzi genuen han zer edo zer, eta beste zer edo zer jaso. Koordinazioa ere bizia izan da, hilabete luzetako lana: erditze txikia izan da, ia seme-alaba izatea modukoa.

—Lehenengoz izan zinen Palestinan?

—Bai, guztiok. Aurretik egondako Askapenako kide bat ere bazetorren, baina Palestinan sartzea galarazi zioten; ni bezala, hura ere kazetaria da.

—Beste herrialde batzuetan egon zara, baina Palestinakoa berezia izan da?

—Palestina zer gertatzen den denok ezagutzen dugu, gutxi gorabehera. Gatazkaren irudiak dauzkagu: bondardaketak, ekintzak, e.a. Baina ez dugu imajinatzen egunerokoa, pertsonak daudela,

zer jan, zer jantzi, zer musika entzun bezalako gauzekin kezkatuta; arruntak dira, gu bezalakoak. Hori izan da harri-garriena. Gatazkaren atzetik badago herri bat kultura aldetik oso aberatsa. Bizimodua ezagutu ahal izan dugu.

—Eta zelakoa da egunerokoa?

—Okupazioak eragina dauka alor guztietan: lana bilatzeko, mugitzeko, adierazteko, kultur ekimenak antolatzeke, e.a. Baina bestetik, jende oso alai eta

abegikorra topatu genuen. Israelek eman zigun tratua kontrako. Euren kezkek ez dira oso bestelakoak gurekiko, behintzat gazte mailan. Emakumeekin ere, herri arabiarra da eta islamismoa ere badago, baina harremana naturala izan dugu guztiarekin. Emakume militanteak eta feministak ezagutu ditugu.

—Zelakoa da euren egoera?

—Betiko paradigma egiten dugu: emakumea guztiz ezeztatuta, aurpegia tapatuta, e.a. Maila batzuetan badago, baina adibidez, gu Jordaniatik sartu ginen, herrialde islamista, oso tradizionala, eta han ez zen ikusten emakumerik kalean. Palestinan, aldiz, emakumeak egunerokotasunean kalean daude, oso gutxi aur-

pegia estalita, parte hartzen dute bizitza politikoan eta kulturean; egoera bestelakoa da Siria edo Jordaniarekin alderatuta. Islamismoaren igoerarekin bai sortu dira arazo batzuk, baina hemengo emakumeen arazo beretsuak bizi dituzte: kezka berak tradizioen zamari aurre egiteko. Horrek ere harritu gintuen.

—Zelan ikusten dute etorkizuna?

—Erresistentzia motarik zabalduena da egunerokotasunean duintasunez bizi ahal izatea. Israelek daraman ildo da, batez ere Zisjordanian, bizitza ahalik eta zailen eginaraztea palestinarrei, emigratioa eragiteko. Hor kokatzen da harresiaren eraikuntza, miaketa puntuak, e.a. Ezin palestinar denak akabatu, eta beraz,

handik ospa egitea eragin gura dute. Horren aurrean eustea da palestinarren helburua. Atzerritik ikusita, etorkizun oso beltza da, Israel ez du inork zigortzen, Europar Batasunak kondenatu ere ez du egiten bere jokaera. Beraz, ezinbestekoa da nazioarteko laguntza Israeli aurre egiteko. Bide luzea oraindik.

—Euskal Herriak sentiberatasun berezia dauka Palestinarekiko, zergatik ete? —Nazioarteko herrialdeekin elkartasun mugimendua betidanik dago gurean. Gainera, herri bien artean antzekotasunak ere badaude: segituan ulertzen dugu hango gatazka, balore nagusietan bat egiten baitute han eta hemen bizi duguna, egoera desberdinak izan arren. ○



**BETIKO**  
IKASTOLA

*Kalitatezko irakaskuntza euskalduna*

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GAVRKO**




GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
Tf.94 460 70 84

[zinema]

## Eta saridunak dira...

Lehenengo **Zubiak Film Laburren Lehiaketako** sariak banatu dituzte



Zubiak lehiaketako kartela

**Zubiak 2012**, Aniztasunaren aldeko, diskriminazioaren aurkako Film Laburren Lehiaketan saritutako lan-emanaldia eta sari-banaketa egin zen martxo amaieran Areetan. Getxoko Udaleko Immigrazio Zerbitzuak antolatu, eta beste hainbat elkareren eta erakundereen babesa jaso duen lehiaketaren lehenengo edizioa izan da aurtengoa. Tolerantzia-guneetarako bideak sendotzeko eta guneok iraunarazteko, desberdintasuna ospatzeko, diskriminazio-egoerak zorrotz kritikatzeko eta salatzeo asmoz sortu dute antolatzaileek ekimena; eta lehenengo ekitaldirako "kalitate handiko lanak" jaso dituztela adierazi dute.

Azken txanpara, 21 lan pasa ziren; Danimarka, Alemania, Turkia, AEB, Espainia eta Zeelanda Berritik heldutako film laburrez gainera, Euskal Herriko ekoizpenak ere izan dira: *El metodo de Julio* (Jon Garaño, 2010), *La Media Pena* (Sergio Barrejon, 2011) eta *4 Estaciones* (Niko Vazquez, Eva Mateos; 2011). Immigrazio esparruko eta arraza-

**«Migrazio, asilo, lege, elkarbizitza, arrazakeria, diskriminazio zein indarkeriaz lotutako gaiak»**

keriaren aurkako borrokagaz lotura duten elkarreterako kideek eta zinemunduan dabilzan hainbatek (Getxoko Etorrinak Plataforma, Sos Arrazakeria Bizkaia, CEAR Euskadi, Borja Crespo eta Zineklub Getxo) osatu zuten epaimahaiak hurrengo lanak saritu zituen: lehenengo sariagaz *Afivist* ("Denied", "ukatua"; Aage Rais-Nordentoft; Danimarka, 2009), bigarren sariagaz *La Hegira* ("hejira", musulmanen epe-aldia; Liteo Deliro, Espainia, 2011) eta hirugarren sariagaz *Uwe+Uwe* (Lena Libertaria; Alemania, 2009); aipamen berezia jaso zuten *Ngutu* (Maysun Cheikh Ali; Espainia, 2010) eta *Mon Amour Historias de muros* (Felipe del Olmo eta Daniel Valledor; Espainia, 2011) lanek. ○

## Afari musikatuak

Erandioko **Kalezulo** gaztetxea **Afari Akustikoak** eskaintzen hasi da



Afari Akustikoak ekimenaren lehenengo ekitaldirako iragarkia

**Ez da ohikoa** orrialde edo atal honetan mota honetako ekimenen barri emotea. Izan ere, oro har, musika izaten delako jauna eta jabe. Halere, musika eta gastronomia askotan joan ohi dira alkarren esutik. Oraingoan musika akustikoak batuko du Kalezulo gaztetxean (Alzagako Jose Luis Goioaga etorbideko 11. zenbakian, Faro enpresa ohian) hilean behin antolatuko duten afari-giroa.

Martxoaren 22an, eguenean (20:30), prestatu zuten gaztetxeoek musikaz girotutako lehenengo afaria; eszenatokian Los Bronkos taldea egon zen, hainbat

ikuskitzen ere iragarri zituzten, eta menu bereziak 5 euro balio zuen.

Afari Akustikoak hilean behin eskaintzeko asmoa dute Erandioko Kalezulo gaztetxeoek. Halere, hurrengoan barri, ez dugu izan oraindino, hau da, ez dugu aurreratuko hurrengo afari musikatu noiz izango den, ezta zein talde edo bakar-lari izango den oholta ganean; oster, non izango den badakizu, eta horrelako ekimenak gogoko badituzu eta afari-giro lasaiagaz eta jateko merkeagaz zein gaztetxeo kideakaz gozatu gura baduzu, adi ibili eta aukerarik ez galdu! On egin! ○

## diskoak

**The tree**  
Beñat Fuentes eta XuJun  
Hotsak



Beñat Fuentes mungiarak (Pog Mo Thon edo Big Fingers and the Love Seeds) eta XuJun (kantaria, perkusio jolea) txinatarak abiatutako egitasmoaren fruitu da *The tree* diskoa. Kantuak ingelesez dira, baina bada euskarazko bat "Venus dago ederren". Ekologiaz, globalizazioaren nora ezaz eta kontra egitearen garrantziak mintzo dira letrak.

**Izan**  
Kokein  
Autoedizioa



Boskote eibartarrak laugarren estudioko lana autoekoiztu du; euren webgunean doan lor daiteke. Hori bai, "jendearen borondatean sinetsi nahi dugu, zaleak beti izan zarete onak gurekin (...) diskoa ateratzeak suposatzen duen esfortzua baloratu nahiko bazenu asko eskertuko genuke laguntza ekonomikoa...". Info+: www.kokein.com

**Gailurrak ikutuz**  
Kupela  
Elkar



Bertsolaritzaren gaineko bilduma monografiko erakargarria osatu du trititilari bikoak. Anjel Larrañagak buruan gordeta zeuzkan hainbat bertsolariren (Sebastian Lizaso, Lazkao Txiki, Andoni Egaña e.a.) bertsoei musika jarri die Xabier Zabalek, ohiko erromeria eta plaza giroko musikari fidel. Larrañagak berak zuzenean jasotakoak dira bertso danak.

## jaialdia > Andrak musikan

XII. Emakumeak Musikan jaialdia iragarri du Getxoko Kultur Etxeak. Egun bitan banatutako jaialdia Mujeres en la Musica elkartearen ekimenez antolatzen da urtero, eta aurten hilaren 21ean eta 22an egingo da Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Zapatuan, 18:30ean, mahai-ingurua egingo dute Gotzone Higuera, Anna Bofill, Mercedes Zavala eta Cruz Lopez de Regok hurrengo gaiaren inguruan: "Emakumea eta musika bokala: interpreteak eta egileak", ostean, Trio Brouwer-en kontzertua 20:00etan. Domekan, 12:30ean, Eugenio Gandiagaren omenezko kontzertua egongo da: Andres Isasi abesbatza eta M<sup>a</sup> Eugenia Martinez piano-jotzailea, Imanol Ormazaren zuzendaritzapean. Gonbidapen-sarrera apirilaren 11tik aurrera Getxoko Kultur Etxetan edo Musika Eskolan hartu beharko da.

## kontzertua > Chambao

Bosgarren estudioko lana plazaratu barri du aurten talde legez 10 urteko ibilaldia beteko duen Chambao taldeak. *En el fin del mundo* lana zuzenean grabatu zuten Argentinako Perito Moreno glaziarraren arrakala erraldoi batean; ingurugiroaren defentsan, eta aldaketa klimatikoaren, kutsaduraren kontrako euren sentsibilitatea adierazi nahian, kontrajarria dirudien arren. Lana Santana 27 aretoan (Boluetan, Bilbo) aurkeztuko dute, maiatzaren 11n, 21:00etatik aurrera; sarrerak salgai daude 23 eurotan (www.ticketmaster.es, 902 150 025, FNAC, Carrefour, Fotos Ikatz, Halcon Viajes e.a.)

etorri eta ikusi!!

**MORIXA**

liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kalegoz bar) Tf. 94 491 68 05 Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu **%50eko** deskontua izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean Tf. 94 430 15 00 (15 eguneko epemuga)

**I**

**Iñaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45 Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

## Euskal anarkismoa


**Plaza Beltzak** Juantxo Estebaranzen liburuaren aurkezpena antolatu du **hilaren 20an**

**Larrabasterran** egoitza duen Plaza Beltza kulturuneak Juantxo Estebaranzen idatzitako *Breve historia del anarquismo vasco. Desde sus origenes al siglo XXI* lana aurkezteko ekitaldia antolatu du apirilaren 20rako (19:30).

Gerra aurreko eta Gerra osteko anarkistek Euskal Herrian egindako borroka islatu du Estebaranzen. Euskal anarkismoaren jaiotza, langile mugimenduaren adarrean sortua, 1870ean ezarri du idazleak; orduetik eta XX. mendean zeharreko ibilaldiaren gorabeherak kronologikoki eskaini ditu lanean. Hainbat gertakari eta pasarte batu ditu liburura, berbarako: Loiolako koarteleko militar matxinatuen altxamendua zapuztu zutenekoa; Beorlegi koronelaren tropei aurre egitera Aiako

**«Gertakariak, oinarritzko testuak, emakumeen ekarpenak, eztabaidak e.a.»**

Harrira joan zirenekoa; Aieten eta Kontxan Francoren aurkako hainbat ekintza egiten saiatu zirenekoa, Durrutik Donostiatik alde egin behar izan zutenekoa e.a. Gainera, anarkismoaren oinarritzko zenbait testu, eztabaida garrantzitsuenetakoak ulertzeko gakoak, euskal nazionalismoaren eta anarkismoaren arteko harre-



Txertoa argitaletxeak banatzen du liburua

mana, emakumeen ekarpenak, zein hurbi-leko anarkista "ezagunen" (Xaho, Marc Legasse, Galo Diez, Angel Aransaez, Gregorio Suberviola, Felix Likiniano, Casilda Hernaez eta Isaac Puente e.a.) ibilaldiak eta biografiak jaso ditu idazle bilbotarrak Txertoa argitaletxeak kaleratu duen liburuan. Horrez gainera, matxinada libertarioaren ereserkietan eta ikurretan (A biribildua ezagunari) ere arreta ipini du, anarkismoaren gaian eta ekintzan diharduen idazleak.

Horretaz ezagutza han-diagoa jaso eta berba egin gura duenak Plaza Beltzan (Akilino Arriola, 59) du hitzordua. ○

liburuak



**Marta ispiuluaren aurrean**  
Teresa Calo Fontan  
Elkar

12-16 urtekoei zuzendutako Caloren lana euskaratu du Mixel Muriak. 17 urteko Martak bizitzako azken hilak gogoratzen ditu; lasaitua izan zen galderak, aholkuak, amaren negarrak gehiago ez entzun beharra; jan behar ez izatea, disimulatzeko, jaten zuelako itxurak egitea, botaka egitea...



**1512 In memoriam**  
Juan Luis Landa  
Erein

Aurreko urtean lan honen barri emon genizun, baina orduan gaztelaraz baino ezin zitekeen eskura; orain euskaraz lor dezakezu. Errenteriako idazleak XV. mende amaierako Nafarroako gerra (Gaztelak konkistatzea ekarri zuena, azkenean) du nobela honek oinarri.

[kirola]

**Mireia Epelde** > Lointek taldeko txirrindularia

“Nazioarteko lasterketetan, dudan maila erakutsi nahi nuke”



Epeldek txikitik aukeratu zuen txirrindularitza

**Azpeitiarra** da Mireia Epelde; halere, da-goeneko, hirugarren denboraldia du Lointek taldean. Horregatik, beragaz egon gara, eta hasi barria den denboraldiaren inguruan galdetu diogu.

—**Lointek taldean baino lehen beste talderen batean ibili zara...**

—Bai, eskolan egon nintzenean Azkoitiko Peña Elorzan ibili nintzen. Kadeten, lehen urtean Azpeitiko Lagun Onak taldean egon nintzen, eta hortik Bizkaia-Durango egin nuen hainbat eta hainbat urte hona heldu nintzen arte.

—**Zelan hasi du aurtengo denboraldia Ugeraga-Lointek taldeak?**

—Bi lasterketa bakarrik izan ditugu: Espainiako Kopa eta Frantziako kopa. Lehendabizikoan garaipena lortu genuen talde-lan ona egin ondoren. Bigarrena, berriz, nazioarteko lasterketa zen eta helburua baita lasterketa planteatzeko modua ere oso desberdinak dira. Oro har, uste dut paper on bat egin genuela. Beraz, bi lasterketa horiek kontuan hartuta ongi hasi garaile esan genezake.

—**Eta zu zeu, nola zaude?**

—Gogotsu, indartsu, animo handiz. Beste urteetan ere hala egon naiz, baina aurten oraindik gehiago. Helburu pertsonalak betetzeko asmoz, eta lasterketetan garaipena lortzeko irrikaz nago. Iaz ezin izan nuen lortu; aurten, baina, amaiera ezberdina izango den itxaropenez nago. Beraz, ilusionatuta nago.

**«Txirrindularitzak eskatzen digun sakrifizioa zailtasun handiena da»**

—**Aurtengo zure erronka?**

—Garaipen batek poz handia emango lidake, baina nazio arteko lasterketetan benetan dudan maila azaldu nahi nuke, benetan balio dudana.

—**Zeintzuk dira zailtasunak?**

—Egunero-egunero eskatzen digun denbora, sakrifizioa, lanarekin uztartu beharra. Baina, ondoren lortzen dugun poztasuna eta oroimenean geratzen diren momentu on guztiek, beste txar guztiek baino gehiago balio dute. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kizoi moda**



**350 m<sup>2</sup>**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.**

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

**Iker Rodrigo eta Eli Zubiaga** > D3Mren aurkako epaiketan auziperatuak

“Momentu politikoa aldatu da eta agortuta dago legez kanporatzeko estrategia”

Apirilaren 30ean hasiko da epaiketa Madrilgo Auzitegi Nazionalen D3M plataformaren eta Askatasuna alderdiaren aurka. Epaituko dituzten 13 lagunen artean daude Eli Zubiaga getxoztarra eta Iker Rodrigo erandioztarra: 9 urteko kartzelazigorra eskatu dute bakoitzarentzat, eta denera, auziperatuentzako, 109 urte.

—Madrilgo Auzitegi Nazionalen epaituko zaituztete laster biok beste hamai-ka pertsonagaz batera, zergatik?

—2009ko hauteskunde autonomikoetan kokatzen da gure atxiloketa. Orduan aurkeztu zen D3M plataforma, hauteskundeetan parte hartzeko asmoz. Zortzi lagun atxilotu gintuzten. Hauteskunde horietan Espainiar Estatuak ez zuen gura Ezker Abertzaleak parte hartzea, eta honenbestez, Ezker Abertzalea bertan egotea oztopatu behar zuen; oztopo horren baitan kokatzen da gure atxiloketa. Azken batean, Espainiaren asmoa zen Ezker Abertzaleak aukerarik ez izatea hauteskundeetan parte hartzeko.

—Epaiketa politikotzat jo duzue hau ere, hain zuzen, aipatu duzuenagatik?

—Estrategia orokor baten baitan dago epaiketa, Alderdien Legean oinarritutako strategiaren baitan. Eskubide zibil eta politikoen urraketa sistematikoa da herri honetan. Urraketa horren baitan dago, bai D3M eta Askatasunaren aurkako epaiketa, bai bestelako epaiketa batzuk ere, bereziki gazteen aurkakoak: garai hartan gazteen aurkako sarekadak gertatzen ziren ia egunero. Gure kasuan, hauteskunde batzuetan parte hartzeko aukera da urratzen dena, baina testuinguru



Apirilaren 30ean manifestazioa izango da Algortan

horretan ematen da eskubide zibil eta politikoen urraketa sistematikoa.

—Zer jarrera hartuko duzue epaiketan?

—Defentsa juridikoa egingo da, orain arte moduan. Ez dugu ukatuko Ezker Abertzaleko militanteak garenik; izan ere, militantzia politikoa bera da epaituko dutena, baina ukatuko dugu ETA-

**“Ez dugu ukatuko Ezker Abertzaleko militanteak garenik; izan ere, militantzia politikoa bera da epaituko dutena”**

kide garenik, ETAren estrategia aurrera errotea leporatzen digute-eta.

—Baina nola kokatzen duzue epaiketa politikoki?

—Momentu politikoa aldatu egin da eta legez kanporatzeko estrategia agortutaz eman daiteke, amaitutzat; horrela ikusten du euskal jendartearen gehiengoak.

Izan ere, epaiketokaz irudikatzen da Estatuaren ezintasuna euskal herritarren nahiei egoki erantzuteko. Euskal jendarteagaz batera, eskubideak aldarrikatu beharra dago, kalera urten beharra dago.

—Kalera urten diozue, zerbait planteatzen duzue epaiketari erantzuteko?

—Hainbat ekimen eta mobilizazio plan-

teatu da. Apirilaren 14an agerraldi jendetsua egingo dugu, 26an manifestazioa Algortan, 30ean elkarretaratzeko egingo dira Getxon eta Erandion, maiatzaren 5ean nazio mailako manifestazioa izango dugu Bilbon; eta, azkenik, maiatzaren 11n eskualdeko mobilizazioa egingo da Erandion. ○

**Fredi Paia**

## Oregitarrak gaztetan



Ez du esan gure oin zaharrak direzenik, argi itxi doskue-ta 20 urteko asko baizen gaztaok direzela. Baie, hamen dekozue Libe eta Edurne Oregi, gure herriko hondartzatan, nahi kalen. Eurakaz batera Aintzane, euren aizte nagosi eta jable. Aurreko asten alkarrizkete in osten, oin euren gaztaro ikusko du.



[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**

Eguneko menua **Jatetxea** Karta  
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**La Triangu.**

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



**berezi**

Hanburgesak Ogitartekoak  
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



**BODEGUILLA BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
94 430 01 74  
www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane tx**  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA**

C/ Alangobarrri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



**CAFETERIA COSMOPOLITA**

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo  
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



**JAN-TOKI ORMAZTEBAL**

Eguneko menua  
Menu bereziak  
Karta  
Erreserbak:  
94 476 2389  
607 21 89 61  
LUTXANA-ERANDIO



**GURE ETXEA taberna**

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



**Asador Cervecera BERANGO**

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina trianguetan  
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak  
Pollo asado, txulettoa, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad  
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34



Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:  
94 491 13 37  
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

## Talo erako pintxoa

tradizioa pintxotan presente



Pintxoak betiko taloaren itxura gogorarazten digu

**Ohitura** da gurean taloa; herriko jaietan zein azoketan sarri topatzen dugu hura dastatzeko aukera parebakoa. Etxean egiten ausartzen denik ere bada; orain arte baina, gutxitan izan dugu tabernan talo jateko aukerarik; Portu Zaharreko tabernan barriz, horrelako talo pintxoagaz gozatzeko aukera daukazu. Oro har, gaur orriotara dakarkizugun taloak baditu zenbait berrikuntza; izan ere, ez dago artiragaz eginda. Horren orde, gari-opilagaz eginda dago, eta hori da hain zuzen, pintxo honen zatirik garrantzitsuenetakoa. Lehenengo eta behin opila erditik tolestu behar dugu, ondoren bigarrenez tolesteko. Honenbestez, hiruki itxurako opiltxo lotuko zaigu. Hiruki irudiko opiltxo horrek hiru tarte ezber-

din ditu. Izan ere, tolesturak hiru hutsune osatu ditu. Horietan guztietan txistorra zatitxoak sartuko ditugu: hutsune bakoitzean txistorra bana. Txistorrak gordin egon beharko du, opilarekin batera frijitzeko. Txistorra jarri ostean hiru-kiaren muturretan bi zotz jarriko ditugu, aska ez dadin. Ondoren, olio ugaritan frijitu dugu opila txistorragaz batera. Ondo frijitu ondoren, zartaginetik atera, eta ondo xukatuko dugu oliotsu gera ez dadin. Behin xukatuta gazta urdin saltsa gainetik botako diogu. Horrela, talo berezi hau prest izango dugu jan, gozatu, eta bide batez, tradizioari beste modu batean eusteko. ○

**Osagaiak:** gari-opila, txistorra, olio, gazta urdin saltsa.



**LAIAK Taberna**



**BASARTENA URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128



**JUAN-MARI**  
Harategia eta txarkuteria  
ARTESANA  
LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI ZUAZUBISKAR URDAITEGIXA**  
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!  
Alangobarrri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI edantokia frontoi partikularra**  
Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 - ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93



**prentsa • aldizkariak**

GETXOKO KIROL PORTUA  
Ariñazu z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10  
Tf. 94 491 08 21  
ALGORTA

HARTU TXANDA

## GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
Tf. 94 430 22 13      Tf. 94 460 02 88  
GETXO      ALGORTA

## Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T. 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T. 400 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

[horoskopoa]

### URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Sasoitsu zabilzta azkenaldian,  
borroka-kiroletan topera! Oso ondo,  
baina ez berotu gehiegi,  
aldamenekoak arazorik sortuz gero  
zu baino handiagoak badaude-eta.

### OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Oposizio-azterketa datak jakinarazi  
zituztenetik jo eta fuego zabilzta  
ikasten, burua liburuetatik altxa barik.  
Oso ondo, segi horrela, baina gogoratu  
noizbehinka arnas hartzen.

### ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Primeran ekin zenion urte barriari  
baina, hilabeteak igaro ahala, adar  
zuzena okertzen hasi da, gero eta  
traketsago zabilzta. Aste Santuko  
oporraldiak on egingo ahal zizun!

### AITZURRA




(Martxoak 21 apirilak 19)  
Oporretan primeran pasa zenuen  
lagun barriakaz eta barriro alkartzeko  
aitzakia bila zabilzate. Iradokizun  
batzuk: laster datoz Herri Urrats,  
Ibilaldia, Araba Euskaraz...

### HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Udabarria datorrenian... zelaiki  
loratzen dira eta halako egun batean  
jaino zinen zu. Zorionak, segi loratzen  
eta kolorez betetzen lagun eta senide  
danen bizitza.

### EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Negu luzea joan da aurten, baina  
azkenean joan da eta iritsi da  
udabarriko epeltasuna. Halere, goizegi  
da praka laburrak janzteko: kristoren  
hotza pasako duzu gauean.

### GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Hotza aitzakia zeneuk txirindula ez  
ateratzeko, baina daborduko etorri da  
beroa eta primerako egunak daude  
bidegorrian gora eta behera ibiltzeko.  
Mugidu eperdi hori!

### LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Aste Santuan lanean ibili zinen zure  
lagun danak oporretan zebiltzan  
bitartean. Orain mendekua hartu eta  
maiatzaren leheneko zubian alde  
egingo duzu leku ederren batera.

### IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Nahikoa dibertitu zara daborduko, eta  
orain, ikastera! Maiatzeko azterketak  
bertan daude eta nahikoa atzeratuta  
zabilzta. Ekin gogor apunteci, azken  
txanpa da-eta! Euts!

### META



(Irailak 17 urriak 16)  
Atsekabeak arzean uztea lortu duzu  
azkenean, zorionak! Hemendik aurrera  
barri onak besterik ez dituzu jasoko.  
Esperientzia zoragarriak biziko dituzu  
datozen asteotan. Gozatu!

### HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)  
Zer, daborduko udarako planak egiten?  
Ondo pentsatuta, uste baino lehenago  
iritsiko baitira oporrak. Halere, kontu  
asko egin beharko duzu, diru urri  
horregaz ez zara-eta urrutira joango.

### NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Hainbeste futbolekin kalte egingo dizu  
azkenean. Egund osoa ematen duzu taberna-  
zuloan sartuta, eztabaidan, baina langabezia  
amaitzeko gutxi falta zaizu. Ez ete zenuke  
hobe aukirik jaiki eta lana bilatzen hastea?


# Kopiak SALGAI

UK aldizkariaren  
bulegoan

Martikoena 16, 2. solairua **Algorta** (Getxo)  
Alangoko Osasun Zentroaren alboan




Uribe Kostako  
aldizkariaren  
ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuma

1. Olinpiar jokoak. 2. Hizki grekoa. Herio zigorrak obratzeko zeregina duen pertsona. 3. Garai, aldi. Zeuzkan. 4. Yemengo hego-mendebaldeko hiri jendetsua. Institutu. Tona, labur-labur adierazita. 5. Zizelkatzeko lanabesak. Estrontzioaren ikur kimikoa. 6. Galderetan erabili ohi dugun partikula. Las-tadunen familiako landarea. 7. Bokala. Deialdi. Pluralean, suari dariona. 8. Lanbroa. Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundea. 9. Hizketan jardun, solastu. Errepikatuz, gorotza. 10. Egiletzak.

Goitik behera

1. Heltzeko edo oratzeko balio duena. 2. Bosgarren hilabete, maiatz. Sexu eme. 3. Iodoaren ikur kimikoa. Bizkaiko mendia, zorigaitzoko hegazkin istripu larri batek famatua. Dut, haiei. 4. Niobioaren ikur kimikoa. Idisko, zekor. 5. Alaitasun. Bizkaiko Uribe Kostako herri bateko. 6. Begien mintz biribilak. Sarrera nahiz urteera. 7. Arrakalak, artesiak. Utiki. 8. Done, saindu. Izotz, horma, jela. Kontsonantea. 9. Areagotzeko partikula. Ipar Euskal Herriko ikastolak biltzen dituen elkarte. 10. Aurkakoak, guztiz bestelakoak.

Soluzioa

K	V	Z	T	E	R	O	I	U	V
V	K	U	T	V	K	E	L	E	
O	S	I	V	O	N	I	V	L	
K	V	K	E	I	D	E	I		
V	E	L	V	K	E	Z			
R	S	K	E	L	Z	I	Z		
T	N	E	S	Z	I	V	I		
N	E	I	T	Z	O				
O	R	R	E	B	O				
A	D	A	K						

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein herriri adierazten dio alkartasuna Biladi Hadi ekimenak?

> Aurrekoaren erantzuna: Meñakoz hondartza (Barrika)  
> Irabazlea: **Ziortza Kamiruaga**  
\*deitu telefonoz: 944 911 337

**SARIA** **Oinutsik**  
kontsulta podologikoa  
Zubigane 4, SOPELANA. Tel: 94 404 74 20  
oinutsik@euskalnet.net

*Zelan da maiatz bizkaieraz?*

- **Maiuki**
- **Miatz**
- **Lorail**

> Aurrekoaren erantzuna: Zuberoan  
> Irabazlea: **Andoni Sarasketa**  
\*deitu telefonoz: 944 911 337

**SARIA** **La Gusana**  
liburudenda **lagusana**  
Tellagorri plaza, ALGORTA. Tel: 94 491 14 12



\*ATXAZPE'K UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

**ASTRABUDUKO "ATXAZPE" MENDI TALDEA DIMAN, 1974**

**Astrabudua auzoan**, Euskal Herriko hainbat lekutan bezala, mendi zaletasuna oso errotuta egon da eta dago. "Atxazpe" sortu zenetik, logikoa denez, gorabeherak eta etenaldiak ere izan dira baina, gaur egun, bizirik eta osasuntsu dirau. Argazkiko mendizaleak, taldeko bigarren belaunaldikotzat jo ditzakegu; hasierako kide batzuek eta beste berri batzuek hasi zuten bigarren aldi hau, 1974an, argazkia egindako urte berean, Algortako Itxas-Argia mendi taldeak lagunduta eta Tomas parrokoaren eragina ere alde zutela. Dimako San Lorenzo ermita (430 m) da argazki atzealdekoa, Baltzolako koba famatuaren gainean kokatuta dagoena. ○

- 1. **lerroa:** Juan Antonio Navajas, Aintzane, Josu Cerrato
- 2. **lerroa:** Tere Moreno, Bego Elorrieta
- 3. **lerroa:** Felipe Fernandez, Eva Cerrato, Moris
- 4. **lerroa:** Fernando Ordeñana, Julian Orbe "Machito", Jesus Royo "Putxu"

**GOTZON MANTULIZ** > telebista-kolaboratzailea

# “Egin nahi ditudan bidaia guztiak egitea da amets nagusia”

Testua: **Nerea Guijarrubia**



**Defini egizu zeure burua berba bitan.**

Alaia eta abenturazalea

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

*Eraztunen Jauna* pelikulan; izan ere, filma grabatzen diren lekuak harrigarriak dira. Gainera, pelikulak asko gustatzen zaizkit.

**Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?**

*National Geographic*-eko argazkilaria izan nahi nuke.

**Animalia izango bazina, zein izango zinateke?**

Jaguarra, oihanean *erregea* bezala mugitzeko. Sekulakoa izan behar du!

**Eta aitor dezakezun bizio bat?**

Krispetak zineman.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Okurritzen zaizkidan bidaia eta abentura guztiak egin ahal izatea.

**Zein hutsegite ez duzu inoiz barkatzen?**

Nik uste dut azkenean beti barkatzen dudala dena, betiere, beste pertsonak nik barkatzea nahi badu.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**

Barrikako itsalabarrak; leku gutxi ikusi ditut hain politikak eta lasaiak. Zerbait berezia arnasten da bertan.

**Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?**

Lagun on bat, baina langilea izan dadila, lan asko dago egiteko-eta!

**Gogoko esaldirik edo lelorik baduzu?**

Urruti joaten arriskatzen direnak konturatuko dira soilik, zein urrutira hel daitezkeen.

**Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?**

Argentinan, Patagonian izandako egonaldia luzatuko nuke. Gogorra baina bizi osorako oroitzapen polita. ○

**LABURREAN**—2009an *El conquistador* telesaioan irabazle izan zen Mantuliz. Orduetik hainbatetan aritu da algoritarra; diseinatzaile zein modelo lanetan edota kolaboratzaile telebistan, besteak beste. Hamaika zaletasun dituen arren, abentura-zaletasuna urteetan gailendu da; eta horren harira *Gotzon Mantuliz. Diario de un conquistador* izeneko liburua kalera-tu zuen. Horrez gain, moda zaletasunak eroan zuen Hakaõ marka ekologikoa sortzera. Salmenta horiekaz lortutako dirua GK Era bideratzen ei du. Hainbat saltsatan badabil ere, bere abentura-sena ez da baretu; horregatik, udan “Mongol Rally” lehiaketan parte hartzeko dena prestatzen ari da. Bueltan, ziur aski edukiko du UK-ri zer kontatu!

Begiek zenbat hizkuntza dakizkiten! Begirada artean euren ama hizkuntza erabiltzen dute, gorputz adarrekin kreol hizkuntzaren bat darabilte, hizkien arteko elkartzeko eta nahasketa kopuru itzela modu jakinean argitzeko gai dira, argien eta ilunen elkarriketak ere uler ditzakete... Letrekin beste mundu eta egoerak irudika ditzagun laguntzen gaituzte eta irudiak irakurtzeko gai ere badira...

Hizkuntza horietako bi oinarri hartuta, trudieta eta hizkieta, ArgiHizkiak lehiaketa antolatuta dago Getxon. Grezierako fotos (argia) eta graphis (marrazki, idazkera) hitz elkarrekin legez, “argazki” berbak ere oinarri berdintsuak ditu bere osakeran. Hala, “fotografia” edo “argazki” berbak “argiarekin marraztea edo idaztea” dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea da proposatzen dizueguna. ArgiHizkiak Getxon lehenengo aldiz antolatzen den euskarazko literatura-lehiaketa da; eta proposatzen diren argazkietan oinarriturik egon beharko dute horretara aurkeztuko diren testu laburrek. Garuna lagun, argitu begiak eta ipin egizkoak harri hizkiak!



## ARGIHIZKIAK

### Argazkietan oinarritutako I. TESTU LABURREN LEHIAKETA

**Zeintzuk dira lehiaketaren ezaugarriak?**

16 urtetik gorako edonork har dezake parte, Getxon erroldatuta egon ala ez.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, testua zein argazkiri dagokien adierazi beharko du egileak (argazkiaren edo argazkilaria izenak idatziz).

Bi kategoria izango ditu lehiaketak: **sms bidezkoa** (160 karaktere gehienez) eta **posta elektronikoa bidezkoa** (100 hitz gehienez).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo euskalkietan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa e.a.).

Testuak aurkezteko epea: **maiatzaren 1etik 31ra bitartean.**

**Argazkiak ikusteko, baldintzak eta oinarriak ezagutzeko?**

[www.egizu.org/literatuta/argi-hizkiak](http://www.egizu.org/literatuta/argi-hizkiak)

[argi.hizkiak@gmail.com](mailto:argi.hizkiak@gmail.com) • 619 935 541



# Hurrengo irabazlea: zeu!



**Gidabaimena euskaraz**

"Gidabaimena euskaraz" kanpaina, Getxoko, Erandioko eta Uribe Kostako Mankomunitateko udaletan jarri da martxan, herriotako autoeskolen laguntzaz. 2011n, 48 ikaslek egin zuten azterketa euskaraz kanpaina zabaldu den herrietan. Getxon, Erandion eta Uribe Kostan 28 gaztek gainditu zuten euskarazko proba.

Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen dutenek Europan zehar trenez bidaiatzeko zozketa batean parte hartzen dute.

**2011koa ere getxoztar bati egokitu zaio saria, Gorka Saitua La Torre gazteari. Zorionak!**



URIBE KOSTAKO

